
HERNANI 2007 / 08

ALKATEAREN AGURRA

Urteroko argitalpena zena aurten azken bi urtekoak jasotzera datorkigu, hasieratik urtean behin kalean izateko asmoari heltzen diogula argi utzi nahi dugun arren, baina batzutan gauzak honela suertatzen dira.

Edonola ere, urtebeteko hutsuneak esku artean hartu, masiatu eta bertan aurki daitezkeen artikulu zein baino zein interesgarriagoak etxeratzeko gogoa bizirik mantendu edota areagotuko zuela pentsatu nahi dut. Hala ez izanda ere, *HERNANI 2007/08 Urtekarian* behin esku artean interesa pizteko moduko kontuak aurkituko dituzue bertan. Orrialdeetan barrena hasi orduko ohartuko zarete orain arteko bideari uko egin ez eta garai bateko zein gaur gaurko kontuetan murgilduko zaituztela argitalpen honen irakurketak, natura, musika, arte, kirolak, kultura eta beste hainbat esparru ukituz.

Denak ere zuen intereseko izango direla espero dut, asmo horrekin aritu dira lanean urtekarian artikuluak idatzi dituztenak. Guztiei eskerrik beroenak, eta zuei atsegina izan dakizuela.

Niretzat aukera ezin hobea da Hernani berezia eta bizitoki ezin hobea egiten duten esparru ezberdinetan sakondu eta ikasten jarraitzeko, zuentzat ere hori bezain asegarria izatea espero dut.

SALUDO DE LA ALCALDESA

Lo que venía siendo una publicación anual recopila en la presente edición la de los dos últimos años, ya que, aunque queremos dejar claro que mantenemos el propósito inicial de continuar con su periodicidad anual, en ocasiones, las cosas vienen así.

De cualquier manera, quiero pensar que su no publicación en la pasada edición habrá contribuido a mantener vivo e incluso incrementado ese deseo de tener entre manos esta publicación y de leer los artículos, cada cual más interesante, que en ella se presentan. Así, encontraréis en el *Anuario HERNANI 2007/08* diferentes relatos y testimonios que a buen seguro os interesarán. Su lectura os sumergirá desde las primeras páginas en historias de ayer y de hoy, tal y como venía haciéndolo hasta ahora, tratando temas como naturaleza, música, arte, deporte, cultura y otros tantos.

Confío en que todos ellos sean de vuestro interés; este ha sido el propósito de aquellos y aquellas que han preparado los artículos. Mi más sincero agradecimiento a todos ellos y ellas, y espero que también sean de vuestro agrado.

Es para mi una ocasión inmejorable para profundizar y seguir conociendo diferentes aspectos que hacen de Hernani un lugar especial e inmejorable para vivir. Espero que para vosotros y vosotras también lo sea.



Marian Beitialarrangoitia


HERNANI 2007 / 08

HERNANI 2007 / 08

Kultura Batzordea • Artxibo Zerbitzua
Hernaniko Udala
15. urtekaria 2007 / 08

Comisión de Cultura • Servicio de Archivo
Ayuntamiento de Hernani
XV Anuario 2007 /08

Koordinazioa eta aholkularitza • Coordinación y asesoramiento
Jesús Mari Gómez
Inaxio Sanz

Diseinu orokorra • Diseño general
Jorge Ullate Diseño gráfico

Azala • Portada
Alberto Elosegi


Inprimategia • Impresión
Michelena artes gráficas

Lege gordailua • Deposito legal
SS-403-1993

Artikuluetan azaltzen diren iritzien erantzule idazlea bera da osoki.
Las opiniones expresadas en los artículos publicados son responsabilidad exclusiva de sus autores.

1958-2008. 50 AÑOS DEL NACIMIENTO DE LA PLAZA DE IBARROLABURU (BARRIO DEL PUERTO).

Amagoia Etxeberria, Miren Garcia eta Alfredo Moraza



Cauce del Urumea navegable en la antigüedad con los distintos embarcaderos señalados.

Portuaren historia.

Gaur egun Portu auzoa Ibarrolaburu Plaza inguruko etxaldearekin lotzen da. Hala ere, haren jatorria askoz zaharragoa da eta haren izenak berak dioskunez, Urumea ibaiaren ibilguan zehar salerosgaien garraioa behinola errazten zuen ontziraleku zahar batekin dago erlazionaturik. Ibaiek denbora zaharretan funtsezko zeregina bete zuten Gipuzkoako lurraldeko merkataritzasarean, horien nabigagarritasuna nahiko mugatua bazen ere. Urumea ez da arau honen salbuespena; areago, XVIII. mendean Fagollaga inguruetaraino zen nabigagarria. Lehorreko halamoduzko bide-sarea eta ibai-bideak elkarrekin harremanetan jarri eta, gure kasu zehatzean, Donostia hiriburuarekin (edota alderantziz) komunikatzeko bide–sistemarik arinen eta azkarrena bilakatu zen. Garai bateko trafiko arin horren oroitzapen ugari geratu zaizkigu inguruetako toponimian bertan: *Itsaspuru* (itsasaldiaren punturik gorena), *Karabele* (karabelak edo belaontziak igarotzen diren lekua), zirrindolak zeinetatik ontziak amarratzen baitziren eta orain dela asko ez dela hainbat baserritan (*Aldagaia* edo *Piper-Enea* baserrietan, kasu) zintzilik ikus zitezkeenak edo *Lonja* etxea bera, zeinaren izenak oso aztarna argia ematen baitigu bere jatorriari buruz.

Historikoki hainbat izango dira Urumea ibaiak bere ibilbidean zehar edukiko dituen ontziralekuak, esaterako, Osiñaga, Fagollaga, Arbizu-Portu edo Karapoten ditugunak, Hernanialdekoak bakarrik aipatzeagatik. Baina horietako batek bereziki bideratuko du inguruko trafikoa, denborak lagun izena hortik hartuko zuen auzunean dagoenak, hain zuzen.

Ibai-portu hau Lonja baserritik hurbil kokatuko da, bertako ontziralekura mota guztietako salerosgaiez zamaturiko txalupak iristen zirelarik (arraina, laboreak, ardoa, jaki gazituak, e.a.) eta ibarreko burdinoletan manufakturatutako burdinarekin urari beheiti itzultzen ziren. Zalantzarik gabe, etxe lonja edo errenteria horietako baten aurrean gaude, non hainbat produktu biltegiratzen baitziren, geroago ontziratuak edo gurdizain eta mandazainen bidez euren azken destinora igorriak ziren arte. Lonja hauetan zerga ederren nahitaezko kobrantza egiteari ere ekiten zioten, eta horregatik askotan probintziako agintariek kontrolaturik egoten ziren, edo Hernaniren kasuan bezala, Udalak berak kontrolatzen zituen eta. Udalak aldian behin portu-lonja honen kudeaketa errentan jartzen zuen partikularren batentzat, zeina arduratzen baitzen salerosgaien garraioagatiko zerga horiek kobratzeaz, kontzeptu horren pean diru-zenbateko jakin bat udal kutxei entregatu behar ziolarik. Ekandu horretaz jasota dagoen albisterik zaharrena 1580. urtekoa da, joan den XIX. mendea ondo aurreratuta egon arte indarrean iraun zuelarik.

Lan hori aurrera eramateko azpiegitura oinarrizko batzuk izaten zituzten, besteak beste, ontziralekuak, biltegiak, e.a. Salgaiak kargatu eta deskargatzeko lanak egiaztatzea, pisatzea eta zegozkien zergen kobrantza ere bertan egiten ziren.

Urumean nabigatuz tamaina handiko ontziak ikusi nahi izan dituztenen amets poetikoen gainetik, errealitatea askoz biribilagoa da, merkataritza-trafiko guzti hori "ala" txiki batzuen bidez eramaten baitzen aurrera. Alak hondo laueko gabarra antzekoak ziren, oso zabalak, eta sakonera txikiko uretan nabigatzeko egokienak ziren, hondoa jotzeko beldurrik ez baitzegoen. Ibaian gora edo behera ibiltzeko giza indarraz edo, gizakirik ezean, zamari eta idien laguntzaz baliatuz.

Mendeak igarotzearekin, ibaibidea jalkin naturalez (lohiak, hareak, errekarriak) betetzen joan zen, ibilgua gero eta gehiago itxiz eta nabigaziorako erabilezin geratuz. XIX. mendearen erdi aldera, bai ibilgailu-zirkulaziorako bai trenbiderako komunikabide-sare arinago bat garatu zutenean, ibai bidezko komunikazio-sistema tradizional honek bere zentzua galdu zuen.

Ibai-merkataritza handi bati buruzko istorio hauek bizi gareneko etxeek betetzen dituzten 50 urteek baino nortasun eta aberastasun askoz handiago batez hornitzen dute Portu auzoa.

El 22 de agosto de 1958 se procedía a inaugurar oficialmente el grupo de casas conocido con el nombre de "*San Juan Bautista*", grupo que conformaría el núcleo principal de la actual Ibarrolaburu plaza y del barrio del Puerto. Al acto, celebrado a las 12 del mediodía, acudieron las principales autoridades del régimen franquista del momento, entre los que se encontraban el Gobernador Civil de Gipuzkoa y Jefe Provincial del Movimiento (Sr. del Moral), el Vicesecretario General del Movimiento (Alfredo Jiménez Millas), el Director General de Vivienda y Jefe Nacional de la Obra Sindical (Luis Matos), el Obispo de la Diócesis (Doctor Font Andreu), el Delegado Provincial de Trabajo (Sr. Gandasegui), el Jefe Provincial del Sindicato de la Construcción (Sr. Sagarzazu), el Coronel Jefe de la Frontera Norte (Sr. Ortega), el Coronel de la Guardia Civil (Sr. García Lasierra) junto al Alcalde de Hernani (Tiburcio Aguirre) y otras autoridades locales y policiales.

La "jornada de trabajo" de esas autoridades fue sumamente estresante ese día ya que junto al de Hernani se inauguraron asimismo otros grupos



Entrada de las autoridades el día de la inauguración, el 22 de agosto de 1958.



Bendición del Grupo, por D. José Elgarresta.



Entrega de llaves.




Imagen del barrio antes de la construcción del Grupo.

de casas semejantes en otras localidades como Irun, Tolosa, Elgoibar, Orio y Arrasate. En total se hicieron entrega de unas 520 viviendas en todo Gipuzkoa.

La historia del Grupo San Juan Bautista de Hernani se había iniciado unos tres de años antes cuando en julio de 1954 la "*Constructora Asistencial Nuestra Señora de Aranzazu*" presentó ante el Ayuntamiento hernaniarra una solicitud para proceder a la construcción de un grupo de casas protegido en el barrio del Puerto. El proyecto estará firmado por los arquitectos Isidro Setien Alberro y Juan Miguel Rezola Azpiazu, y contemplaba la edificación de un total de 71 viviendas y 7 locales comerciales sobre una parcela de unos 6.000 metros cuadrados. Esta parcela había sido recientemente adquirida con ese fin en una zona anteriormente ocupada por huertas. En la zona apenas si existían una serie de pequeñas casas y caseríos, muchos de los cuales aún se conservan (Aldagaia, Egañaenea, Sutegi Zahar, Lonja o Portuetxe entre otros) y otros ya desaparecidos.

Esta promoción, al igual que las llevadas a cabo en esas otras poblaciones, estará auspiciada por las autoridades franquistas con el objeto de favorecer la construcción de viviendas y mejorar las condiciones de habitabilidad en aquellas localidades que presentaban un amplio desarrollo industrial, intentando con ello paliar el creciente problema de la falta de vivienda. La promoción se acogió a la Ley de Viviendas Protegidas de 1939, teniendo una gran acogida entre los vecinos de la zona, y de localidades más alejadas. Ante la gran demanda se procedió al sorteo de las viviendas, debiendo de adelantar cada uno de los beneficiarios cantidades periódicas de dinero para poder llevar a cabo primero, la compra de la parcela y posteriormente, la propia construcción de las viviendas. Las rentas de amortización rondaron entre las 268 y 296 pesetas según cada caso específico.



Obtenidas todas las autorizaciones preceptivas (de la Diputación Provincial, de las Delegaciones nacionales de Vivienda y Sanidad, etc.) el Ayuntamiento otorgó finalmente en pleno celebrado el 11 de agosto de 1955 la autorización para comenzar las obras, con lo que ese mismo año dio comienzo la construcción de los bloques de viviendas. De esta labor se encargó la empresa constructora de origen catalán Compañía Constructora, S.A. (E.C.I.S.A), siendo precisamente éste su primer trabajo realizado en Gipuzkoa. El presupuesto final de la obra ascendió a 6.320.000 pesetas, de las de la época. El proceso de obra fue lento y muy costoso, experimentando a lo largo del mismo numerosos parones, con la lógica desesperación de aquellos que habían invertido sus ahorros en esas casas. Finalmente, el propio Ayuntamiento hubo de contribuir económicamente para poder concluir la obra, gracias a la donación efectuada por la viuda de Javier Ibarrolaburu. Este tolosarra vino a residir de pequeño a Hernani, y tras su fallecimiento en 1954 su viuda, María Cruz Lasheras, hizo entrega al Ayuntamiento de una cantidad de unas 50.000 pesetas *"para la construcción o mejora de un pabellón que sirva para duchas y algún baño de servicios económicos en beneficio de la clase trabajadora. Si este servicio ya estaría establecido, dicha donación podría aplicarse como ayuda a la construcción de viviendas económicas para obreros"*. La Corporación, en reunión celebrada el 1 de diciembre de 1954, acordó destinar esa cantidad a la nueva promoción que se iba a llevar a cabo en la zona del Puerto, dando el nombre del difunto a la nueva plaza.





En esta fase se edificaron un total de tres bloques diferenciados, adoptando una disposición específica para garantizar la protección del viento (estos bloques se corresponden con los actuales Ibarrolaburu plaza nº 1 a 11). En el espacio central se generará lo que actualmente se conoce precisamente como Javier Ibarrolaburu plaza, mientras el resto del espacio permanece ajardinado. El acceso a este grupo de viviendas se hará directamente a través de la carretera que bajaba del Casco, habiendo previamente de expropiar y derribar una pequeña tejavana anexa a la casería Aldagaia.

Las casas a construir, según el proyecto, dispondrían inicialmente de cocina-comedor, aseo y tres habitaciones, con plantas de entre 68 y 86 m². En las crónicas de la época se decía de estas casas que "*las fachadas y la urbanización son sumamente acertadas y atractivas. Las viviendas, aparte de otros detalles, poseen agua caliente y fría*"; un aspecto éste último que suponía una gran novedad y avance en la época. Fue tal el deseo por ocupar aquellas casas que muchas de las familias beneficiarias entraron ya a vivir en las casas con unos simples colchones en el suelo y aún sin disponer ni de agua ni electricidad; éstas llegarían días después. En los bajos fueron abriéndose diferentes negocios (droguería, tienda de ultramarinos, carnicería, pescadería, taberna,...), algunos de los cuales aún siguen en funcionamiento.

Pero, la bonita realidad dibujada por las crónicas parece ser no fue sino otra muy distinta. Detrás de aquellas grandes palabras pronto empezaron a aflorar los problemas. Al poco de ser inauguradas las viviendas comenzaron las quejas ya que los acabados no eran "tan excelentes". Las viviendas se entregaron en unas condiciones muy deficientes (sucias), se caían los azulejos de las cocinas y baños, en las paredes aparecían grandes manchas de humedad, en un bloque llegó incluso a partirse una viga del portal, etc. Muchas de las familias, con el fin de disfrutar de unas condiciones mínimas de comodidad, hubieron de hacer obras de reforma al poco tiempo de entrar en ellas.

No obstante, el principal problema no vino dado tanto por las propias viviendas sino por la deficiente urbanización de la plaza resultante. Inicialmente esta obra había quedado a cargo del Ayuntamiento, si bien la zona presentaba una serie de problemas estructurales de muy difícil resolución. La instalación del alumbrado no se efectuó hasta la primavera de 1959, y la misma dejaba mucho que desear, al igual que el alcantarillado que solía estar frecuentemente atascado. Su ubicación en una zona baja de la ladera y junto a un pequeño riachuelo hacía que en períodos de fuerte precipitación la plaza quedase completamente anegada de agua como bien se acordarán muchos de los vecinos. Una situación que se agravará aún más por el continuo trasiego de camiones con destino a las obras de las otras casas que se encontraban en construcción.

Las quejas de los vecinos ante el Ayuntamiento fueron constantes, e incluso taxistas, médicos o practicantes se negaban a entrar en la plaza convertida en un gran cenagal, llegando en ocasiones a tener los propios vecinos que llevar a los enfermos en brazos por que no podía entrar la ambulancia hasta la misma. El malestar creado entre los vecinos llegó a oídos de una de las principales figuras políticas del momento, el Delegado Provincial de Sindicatos (Francisco J. Aguirre Telleria), quién tomó cartas en el asunto y se puso en contacto con las autoridades locales. En un escrito bastante contundente enviado por este Delegado en mayo de 1964 al alcalde Tiburcio Aguirre, el mismo que había inaugurado el Grupo, se señalaba textualmente que la plaza "*está hecha una verdadera porquería*", presionándole para que tomase las medidas necesarias para corregir el problema y hacer que el "*barrio sea limpio y adecuado para vivir personas, pues en la actualidad da que pensar si estará hecho para cuadrúpedos*". Las medidas parece que dieron efecto ya que inmediatamente se comenzó a elaborar el proyecto de reforma y mejora de la plaza, aprobado definitivamente en agosto de ese mismo año de 1964. Las obras consistieron básicamente en relevar la cota de la plaza unos 70 cm. y en la ejecución de un nuevo sistema de alcantarillado.

Un par de décadas después, con el grupo total de casas ya concluido, se volverá a reformar esa plaza cambiando los sentidos de aparcamiento, la ubicación del área de juego, etc. hasta alcanzar el aspecto que actualmente posee. Medidas que se completaron con la canalización de la problemática erreka que a partir de entones no ha vuelto a provocar nuevos daños.

La promoción llevada a cabo por las autoridades del Movimiento tuvo pronto su eco en la iniciativa privada, y a esas primeras casas se les fueron



A pesar del proyecto de mejora y reforma de la plaza, durante muchos años el barrio siguió inundándose (caso de agosto de 1983).



Imagen aérea del barrio en 1977.

uniendo casi inmediatamente otros nuevos bloques de viviendas hasta conformar la actual barriada. El proceso de ejecución de esos nuevos bloques chocará frontalmente con la oposición de la Delegación Provincial del Ministerio de Vivienda, quién una y otra vez reiterará al Ayuntamiento que antes de promover cualquier nueva construcción en la zona era necesario aprobar un Plan Parcial de Ordenación de la misma. El Plan General de Hernani había definido el desarrollo de la zona como una nueva *Ciudad-Jardín* pero la presión inmobiliaria terminó finalmente por ganar la partida y la zona se fue urbanizando un tanto caóticamente sin atender a planificación alguna.

Pocos meses antes de la inauguración oficial del Grupo, en junio de 1958, Alberto Mujika González y Alberto Fernández Lejarreta presentarán una propuesta para ejecutar una nueva casa en el espacio ubicado entre las casas del Grupo y la regata. A pesar de las primeras negativas municipales a su ejecución por las antes referidas presiones de la Delegación Provincial, finalmente se autorizó su ejecución, estando concluida para 1962; esta casa será el actual número 14 del Barrio del Puerto. Las siguientes construcciones vendrán a ocupar diferentes parcelas en ese mismo sector del barrio, siendo todas ellas obra del tándem formado por el promotor Francisco Apecechea Zubieta y el arquitecto Juan Miguel Rezola Azpiazu, el mismo que había diseñado el Grupo. En 1963 se inaugurarán los bloques correspondientes a los actuales números 13 (en mayo) y 12 (en octubre), y dos años después, en 1965, el bloque formado por los números 15 y 16. En la mayor parte de los casos el constructor fue severamente multado por iniciar las obras sin disponer de licencia alguna pero todas ellas fueron finalmente ejecutadas. Este proceso de construcción culminaría, en cierto modo, con la ejecución de los actuales números 5 y 6, sobre el solar de una pequeña construcción abandonada, siendo inaugurada la casa en 1972.

... En definitiva, han transcurrido ya 50 largos años de vida de un grupo de viviendas que dieron cuerpo a un barrio de larga historia. Además, esas casas tienen algo mucho más valioso que el "agua caliente y fría" de la época, los 250 vecinos que las habitan.



Pedro Aparicio (66 años).

Pedro Aparicio: "*...me llamaban algunas veces txurriano, pero yo les decía: ¡eh, si yo puedo ser más vasco que tú!*".

Pedro nació en Zazuar (Burgos) y le gusta decir que *¡mi pueblo tiene las mismas letras que Zarauz, pero con el orden cambiado!*

En la familia de Pedro eran cuatro, y fue el hermano mayor el primero en venir a Euskal Herria ya que aquí fue donde le tocó hacer el servicio militar (el hermano mayor de Pedro era el padre del que hoy lleva el bar Shangai). De Burgos a Hernani, luego fue su hermana quien vino, y finalmente Pedro y su madre, viuda dos años antes. Pedro tenía entonces 11 años y recuerda como en un principio vivieron en el caserío Aranburu, de

Urnieta. El caserío estaba dividido en varias viviendas y no trabajaron en sus labores ya que no tenían ganado... Después, durante dos años estudio en La Salle de Irún.

Cuando se realizó el sorteo de las viviendas del barrio, a ellos les tocó el segundo piso del bloque nº 10. El barrio no le era desconocido a Pedro: *"Vivíamos en Urnieta y cuando empezamos a trabajar, por no andar dando vueltas de Urnieta a Hernani y de Hernani a Urnieta, alquilamos dos habitaciones en casa de Adela: la madre dormía en una de ellas y los hermanos en la otra"*.

El piso que les tocó le pareció bueno a Pedro pero con el tiempo, tuvieron que hacer algunas reformas. Pedro tenía 16 años cuando vinieron a vivir al barrio, y no conocía a nadie. Aún así, de su edad ya había una cuadrilla pero poco tiempo le quedaba para la diversión ya que desde joven, como nos dice, comenzó a trabajar. *"Una de mis mayores aficiones era andar en bicicleta. Me gustaba mucho, a todos los sitios iba en bicicleta. Los jueves había baile en Hernani, los viernes en Lasarte pero yo iba también a otros sitios: a Goizueta, a Orio, a Zarauz. En el barrio también jugábamos. La plaza muchas veces estaba llena de barro y no se podía andar muy bien pero todavía recuerdo como jugábamos a pelota entre las paredes de la mercería"*.

A su mujer la conoció en Soria, durante un viaje que allí realizó. Su mujer tenía una hermana ya en Hernani y enseguida se animó a venir. Con el tiempo fueron formando la familia, tuvieron cuatro hijos, de los que dos fallecieron años atrás.

Mientras vivían en Urnieta algún que otro desprecio o... le tocó sufrir a Pedro por aquello de que era nacido en Burgos, pero como el dice esas situaciones fueron bastante puntuales. *"Me llamaban algunas veces txurriano, pero yo les decía: ¡eh, si yo puedo ser más vasco que tú... La rama originaría de mi apellido viene de las Encartaciones!"*.

En el barrio, sin embargo, situaciones como esas, dice, no le ha tocado vivir, y recuerda el buen ambiente que en él se vivía: bastantes niños, jóvenes también,... Además, es de la idea de que las numerosas inundaciones que ha padecido el barrio, ayudaron a crear un ambiente de solidaridad entre los vecinos. En una de esas, recuerda como salvó un SEAT 600; como el coche estaba casi totalmente cubierto por el agua. *"Me anime a arrancarlo, ¡hasta la ventana de la casa de los Etxeberria llegaba el agua que salía por el tubo de escape!"*.

Cuando le preguntamos por los problemas que en un primer momento presentaban las infraestructuras con las que contaba el barrio nos contesta que tenía 16 años y que entonces no reparaba mucho en ese tipo de cuestiones. En cambio, recuerda como se llevaron a cabo las obras que después se realizaron en la plaza: *"Cuando la plaza aún pertenecía a la Cooperativa, al Grupo San Juan Bautista, siempre estaba llena de barro. Colocamos dos pivotes para que los camiones no pudieran pasar y aparcar, y para que no dejaran todo hecho un cristo. Los niños parecían unos 'conguitos' cuando allí jugaban. Finalmente, se dio la plaza al Ayuntamiento, no daba más que gastos"*.

Se han hecho más de una obra en el barrio, entre todos: *"Lino nos ponía a todos a trabajar. Nosotros a sus órdenes. El nos dirigía cuando echamos hormigón a toda la vuelta de la plaza"*.



Rosario Goikoetxea, *Roxarito* (79 urte).

Roxarito Goikoetxea: *"Hasieran Joxe Marik eta biok koltxoia lurrean genuela lo egiten genuen, baino begira' ¡contigo pan y cebolla!' esan zidan eta egia esan, oso pozik bizi izan ginan elkarrekin"*.

Joxe dantzan ezagutu zuen. 20 eta 24 urte zituzten. Zikuñagako festetan dantzan aritu ondoren, bizikletako paseo bat baino gehiago egin zituzten elkarrekin. Bere aitak behin Errekaldeko inguruetan "harrapatu" zituen eta "Balantxako kaldereruen" semeak langile fama ona zuela eta, "onarpena" eman zion.

Irigoyenen parean zegoen "Txintxon" (Zintzotasuna zineman) ospatu zen etxeen zozketa gogoan du oraindik. "*Sorteoan juntatu ginen 72 bizilagunak. Horko izkinan bizi den Nievesek disgusto ederra hartu zuen bere alaba ttikienak papera atera zuenean eta bajua tokatu zitzaiola jakin zuenean. Neri 2. pisuan tokatu zitzaidan*".

Sindikatuan enteratu zen etxeak egingo zituztela. Baino oso luze egin zen etxeak eman-hartzeko denbora tartea: "*Zozketa eta gero, bagenekin zein etxe zen bakoitzarena baino giltzarik ez ziguten ematen. Ni bitartean kalean bizi behar izan nintzen kriston zoko-zuloan, Onyin pare horretan. Ni ohituta nengoen gurasoen etxean, Papelerako hartan, uraren kanala ondoan genuela, uraren soinua entzuten eta libre eta kalean eta han, herrian, zoko zulo hartan... Neretzat etxe hauetara etortzea gloria izan zen...*" "*Hau oasis baten modukoa zen...*". "*Ni amarengana joaten nintzen oinez egunero Zikuñagara eta hor ikusten nuen obra aurrea zihoala, eta ez zihoala... Ez zegoen dirurik eta, obrak geldituta egon ziren denbora askoan... Azkenean Udaletxeak jarri zuen dirua bukatzeko. Uste dut Setien eta Rezolak bukatu zituztela etxeak*".

Sindikatuak agintzen zuen zenbat diru eman behar zen kuota bakoitzean. Orain 3.000, orain 2.500, orain zorrak kitatzeko 40.000 gehiago... Erreziboak ere gordeta omen ditu nonbait. Pixkanaka pagatu zuten etxea: "*gizon ttiki bat etortzen zen hilero, uste det, Artes y Oficioseko konserjea zela gizon hau eta 300 pta. kobratzen ziguten hilero*".

"*Etxea hartu genuenean, giltzak eman zizkigutenean.. Jesus! A ze disgustoa! Dena zikin zikiña zegoen. Komuna zerri egina zegoen...*". Sukalde txikia tokatu omen zitzaien Joxe eta Roxaritori, baino ederki moldatu izan ziren denak bertan bizitzen. Alaba, ama eta ahizpa bat ere egon izan ziren etxean bizitzen. "*Apopilorik ez genuen, galerazia zegoelako, ez zuten uzten sindikatukoak eta...*". Maria Antonia alabatxoak 3 urte eta erdi zituen auzora bizitzera etorri zirenean. 3 logelakoa zen etxea eta sala, sukaldea eta bainua ere bazituen. "*Su aurrean azulejatuta eman ziguten baino buf... Nik gero obra egin behar izan nuen, dena irekita ez zitzaidalako gustatzen nola zegoen...*"

Roxaritok aitortzen du auzotar batzuek hartutako lanari esker lortu zutela azkenean etxeak eskrituratzeko eguna jartzea. Egun horretan anekdota kuriosoa gertatu zitzaion Roxaritori auzora etorri berriak ziren Guardia Zibilekin. "*Eskritura gabe denbora asko egon ginan, etxeak ez ziren erabat gureak, ez zitzaien interesatzen eta! Eskriturak ordaindu genituen egunean, etorri berriak ziren goiko kuartelera Guardia Zibilak eta herrian manifestazioa egon zen egun hartan. Garai gogorrak ziren eta manifestazioko mutil batzuei, baten batek, ateak ireki zizkien hor karrozeriko inguruan eta ezin guardiak mutilak bilatu... eta nik portalian topatu nituen guardiak....* "*¡Métase adentro señora!, ¡Métase a su casa! esaten zidaten armakin apuntatzen, eta Joxe Mari neri erritan barrura sartzeko eta ni ezin isildu eta* "*¡Claro que es mi casa! ¡Ya te digo yo que desde hoy sí que es mi casa!...*"

Guardia Zibilak noiz behinka jaisten omen ziren auzora, batez ere dendara eta festetan. Umeekin ere etortzen omen ziren noiz behinka jolastera... Festetan auzotar batzuek batzuetan kantatu egiten omen zieten: "*¡voló! ¡voló! eta trapua botatzen genun airian... eup!*"

Roxarito Kooperatibara igotzen omen zen normalean erosketak egitera baina auzoan hasieratik zeuden lokal mota guztiak oso ongi gogoratzen ditu: "*Drogeria, Pepe Goenagak hartu zuen. Denda, Petra Elizondok. Taberna, Jose Mari Quemadak, oraingo Juan Carlosen aitak. Harategia Martinek eta arrandegia Mª Jesusek. Merzeria ere bazen, ez pentsa: Errok hartu zuen. Gerora mertzeria hau tabernakoek erosi zuten eta handitu egin zuten taberna*".

Oso giro ederra sortu omen zen hasieratik auzoan. Roxaritok lehenagotik ere ezagutzen zituen gero bizilagunak izango zituen asko eta asko: Manoli Makazaga, Hachen ama, Ibarzabal... Bere alaba Maria Antonia txikia zen bizitzera etorri zirenean eta lagunik ez zuen faltako auzo berrian "*gazteak ginen denak eta haur asko zegon orduan barriyuan... gurea, Otxotorenana, Javi, Irenen haur zaharrena...*". Auzoan jaio zen lehenengo haurra askok dute gogoan "*Manolo Ayerbe izan zen, Manoli Makazagana*". Baino zoritxarrez, ume pare bat ere hil ziren hasiera hartan. Roxaritok ongi gogoratzen du oraindik Cristina izeneko neskatoa: "*Ama Birjinari jarritako kandillakin gonak sua hartuta hil zen gaxua. Komunioko arropekin dago oraindik Kanposantuan*".

Denbora pasarako telebistarik ez zegoen garai hartan auzoan. "*Lehenengo telebista Ramoni eta horien etxean zegoela uste dut. Hara joaten ziren gizonak boxeoa eta futbolak ikustera. Eta emakumeak umeak zaintzen egoten ginan, kalean lasai asko, leihoak irekita eta kafea hartzen*".

Roxarito oso emakume alaia da eta auzoaren 25 urteak ere gustura ospatu zituen. " *'Halfband' edo media orkesta hoietako bat gogoratzen dut, filarmonikakin ere ez dakit, dantzan ibili ginela bai... Paquita, Juanito Plomerona... Don Eusebio ere etorri zan festa hartara... Trukutrukun Shangai-eraino dantzan jun ginan... A ze juerga!... Kriston beroa egiten zun, hori bai! Janaria uste det ekarri egin zigutela... Kaballeteekin mahaiak montatu eta plazan ospatu genun bazkaria*".

Dudarik ez dut aurtengo 50 urteak ere dantzan eta lagun arteko jai giro ederrean ospatuko ditugula, besteak beste, Roxarito bezalako bizilagunek auzoari bizitza, argia eta patxada ematen diotelako. Bejondeizula, eta mila esker.



Martín Otamendi.

Martín Otamendi: *"¡Otamendi! ¡Has acertau!"*.

Betelun (Nafarroan) jaioa da Martin. Ofizioa etxetik zetorkion: aita tratantea zuen eta senide asko ziren etxean eta, gertatzen zen bezala, gaztetatik lan asko egitea tokatu zaio Martini. Gaztea zela Betelun bertan muntatu zuen lehenengo harategia eta ofizioa senide bati baino gehiagori erakutsi ondoren Betelu utzi eta Irunen hasi zen lanean.

Portu auzoko etxeak egingo zituztela enteratu zenean Irunen zebilen lanean beste harakin batentzat. Harakin hark traspasoa oso garesti jartzen zion eta kasualitatez, Betelura familia bisitatzera Tolosa alderako trena hartzera zihoan egun batean, Errenteriako gizon batek esan zion bere kabuz harategia jartzeko asmoa baldin bazuen, aukera polita zuela Hernanin etxe berriak egingo zituztelako. Gurasoei komentatu eta 23 urterekin 8.200 pta. jarri zituen harategiko lokalean sartzeko.

Etxea lortzea ez zen hain erreza izan Martinentzat. Harategiaren gainaldeko terrazadun etxea kalean bizi zen emakume bati tokatu zitzaion baino emakume honek ez zuenez hor bizi nahi, Martin akordio batera iritsi zen emakume honekin eta bera hasi zen etxe honen kuotak pagatzen. Hala ere, ez zuen sindikatuko baimena bertan bizitzeko baina azkar asko bilatu zuen modua Martinek: *"bizilagunen firmak biltzea okurritu zitzaidan eta halaxe egin nuen tabernan!"*.

Firmak bildu eta ostiral batean motorra hartu eta eguerdiko 12etan Donostiara joan zen firmak eskuan hartuta. Sr. Pro-ren aurrera joan (Sindikatuko idazkaria) eta bizilagunen artean jasotako firmak erakutsi zizkion. *"Astelehenean, ni dendan lanean nintzela, Sr. Pro agertu zitzaidan eta '¡Otamendi has acertau!' esan zidan"*. Giltzak eskutan zituen hortik gutxira. 1963a zen.

Martin beti izan da eskuzabala eta esker onekoa, eta nahiz eta ez oso argi izan Pro Jaunak operazioan norainoko eragina izan zuen, bada ezpada ere, *"bina gorringo zituzten pare bat dozena arrautza eta azpizuna bidali nizkion"*. Hainbeste desiratutako etxea azkenean lortu zuen *"Palacio de Miraflores"* iruditu omen zitzaion etxea Martini.

Lokalagatik hilero 380 pezeta pagatzen zituen eta pisuagatik 320 pezeta. Denbora gutxira amak arreba gaztea bidaliko zuen Martinekin bizitzera *"ofizioan zerbait erakutsiko diozu zuk"* esan omen zion amak. *"Arrebak Secretariado ikasi zuen monjetan eta hemen etxean bizi zen nirekin. Ordainetan etxea txukuntzen zidan arrebak. Karrera bukatu eta senargai jatorra bilatu zuen Iruñakoa eta Betelura bueltatu ziren"*.

Etxea ez zegoen oso txukun giltzak eman zizkietenean. Martinek gogoratzen du azulejoak ukitu gabe ere erori egiten zirela askotan. *"Su zahar horietako bat genuen sukaldean, gero logelak, eta komuna... ene... dutxa-platera hain zen zikina eta itsusia...!"*. Margarirekin ezkondu aurretik beraz Martinek ikaragarrizko erreforma egin omen zion etxeari, paretak botaz eta dena txukunduz: *"kalentadorea besterik ez zen gelditu"* gogoratzen du Martinek.

Harategiko lana asko gustatu izan zaio Martini. Negozioan boladak zeudela aitortzen du. Batzuetan lan gehiago egiten omen zuten besteetan baino. Jendea gora herrira ere igotzen omen zen erosketak egitera eta. *"Diru gutxi zenean zaldi haragia erosten zuen jendeak. Behikia oso garesti zegoen: 250 gramok 5 pezeta balio zuen eta ezin zen hura ordaindu, beraz zaldikia erosten zuten eta, gerora, kanpotarrekin, txerrikia eta oilaskoa sartu ziren. Ordura arte ez zen hemen txerrikia eta horrelakorik jaten. Arrautzak ere kanpokoak izaten ziren, hemengo baserrietan ez baitzeuden oilasko granjak oraindik"*.

"Etxean bezala, harategian ere obrak egin behar izan nituen urteetan eta azkeneko erreforma, jubilatu aurretik egindako obra handia izan zen. Harategi ondoan zegoen arrandegia Anibali 1.200.000 pezetatan erosi eta hor obradorea jarri nuen". Ordura arte obradorerik ez zuen Martinek eta granjan isilpean lan egiten zuen txorizoak etab. egiten. *"Arriatsuko granja izan aurretik, Elizatxo aldean Xamoraneko horretan, txabola pare batean txerriak hazten hasi nintzen. Behin izurrite batek ia pikutara bidali zidan dena. 4 zerri ama jarri nituen eta 60 txerrikume zituenean izurritea sartu eta dena galdu nuen. Animali guztiak lurperatu eta ukuilua uztekotan egon nintzen, baino aitak animuak eman zizkidan, dena ongi garbitzeko esan eta Oraien pentsuetakoekin nuen 20.000 pezetako zorra kitatzen lagundu zidan"*. Urte eta erdira aitarekin ere zorrak kitatuak zituen eta harategian fin lan egiten jarraitu zuen berak hazitako animalien haragiekin.

1968-1975 urteak onak izan zirela aitortzen du. Garai hartan Martinek Arriatsuko terrenoa erosi zuen bertan granja egiteko. Lursaila ez zuen merke erosi: 300.000 pezetatik gora ordaindu omen zuen. *"Katangan garai hartan bi pisu erosten ziren nik pagatutakoarekin"*. 34 txerrama eta 1.000tik gora oilo izatera iritsi zen momentu batzuetan granjan.

Harategian denetik saltzen zuten: berak egindako txorizoa, odolkia, fama handia zuten tripakiak, arrautzak... Soldata ateratzea ez zen erreza eta ordu asko egon beharra zegoela aitortzen du. *"Igandeetan ere irekitzen genuen askotan. Goizeko 6etarako mezetara joan eta 7etarako dendara. Haragi gehiena asteburuetan saltzen omen zuen. Astelehenetan etxe askotan saldarako hezurrekin konformatu beharra zegoen"*.

Askotan gainera *"¡apuntame!"* entzutea tokatu izan zaio Martini. Zerbait erosi eta momentuan ez ordaintzea ez zen hain gauza arraroa garai hartan. *"Batzuk momentuan pagatzen zizuten beste batzuk astero (Papelerakoak eta horiek ostiraletan kobratzen zuten) eta beste batzuk ba... badakizu, askotan gehien kritikatzen zuena, zor gehien zuena izaten zen"*.

Giro ederra gogoratzen du Martinek auzoan beti. Familiako giroa zegoela aitortzen du. Jendea erosketak egitera lasai joaten zen garaiak ekarri ditugu gogora. Martinen ama, Betelun lan eta lan egindako emakumea, auzora etortzen zenean harrituta gelditzen omen zen *"... amak esaten zidan askotan 'emakume hok bizi dittuk lasai portu hontan!' "*.

Giroa haurrek ere asko alaitzen zuten Martinen ustetan eta gogoratzen du nola egon ziren aste batzuk auzo honetan 5 ume jaio izan zirenak... *"Lehenengoa Manolo izan zen eta bigarrena Talaberana"*. Baina zoritxarrez, 14 urteko haurra obra batean nolatan hil zen ere gogoan du.

Martinen harategian txorizo eta odolkiez gain, telefonoa zegoen. Auzoan zegoen telefono bakarra zenez *"¡el alcahuete de todo!"* sentitzen omen zen askotan. *"Zuk pentsa, auzoan telefono bakarra eta hortxe, harategian, eta bizilagun bati familiakoek deitu eta haien etxera bila joatea ere tokatu izan zait, ez pentsa!"*. Beti bezala horrelako "faboreei" batzuk tamaina ezin hartu eta bati behin esan omen zion *"Aizu, nahikua dezu ya eh... ez dakit zenbat denbora daramazun hitz egiten.... haurra katarruakin dagoela eta hori dena beste batean kontatuko diozu eta benga, kolgatu ya eh..."*

Oso giro familiarra izan da beti auzo honetan bere ustez, Elizatxorekin konparatzen badugu. *"Han ez du ezerk funtzionatu: eskola, 3 taberna, dendak, arrandegia, harategia... dena zegoen, baina ez du ezerk aurrera egin. Hemen kanpoko jendea ere oso ondo integratu da. Goxo, familian. Rollo polita egon da beti. Hala ere politikak azken urteetan min asko egin dio auzoko giroari. Nire ustez auzoa maitatu egin behar da eta hori politikaren gainetik dago... dijuala politika popatik hartzera!"*.

SUCEDIÓ EN HERNANI EL 1º DE ABRIL DE 1918[1]

Felicisima Gómez

A primeras horas de la mañana empezo (sic) *a circular rumores que en Lasarte había unos casos de viruela y el Gobernador de San Sebastián entonces Conde de Piñofiel* (sic) *ordeno* (sic) *su traslado á la Beneficencia de esta; lo que el pueblo en masa se opuso ya que años antes hubo una epidemia de Tifus, dejando húellas* (sic) *de dolor en muchos hogares por perder a sus seres queridos.*

Se hizo una reunión en el Ayuntamiento acordando no admitir á dichos enfermos se mandaría si preciso fuera unos obreros para construir barracones y axislarlos (sic) *en Lasarte; exponiendo esto una comisión al Sr Gobernador, he* (sic) *hirían* (sic) *las monjas de Caridad á cuidarlos. Dicho Sr dio la orden terminante que los trasladasen á Hernani; se acordo* (sic) *de nuevo una reunión tratando lo siguiente,*

1º Desde la torre de la Iglesia se vigilaría la venida de coches por la carretera de Lasarte, y al toque de campanas los obreros abandonarían sus puestos de trabajo para formar barricadas en las entradas de dichas carreteras y salir el vecindario a la calle; a las 10 de la mañana del 2 de Abril sonaron las campanas y sirenas, salieron los obreros y el vecindario para hacer frente a los coches, y Guardia Civiles de a caballo, en Cincoenea.

Los maestros y niños con la bandera Nacional se colocaron en primera fila seguidos del pueblo en masa que gritaban que los lleven al Casino no queremos más epidemia, mientras las mujeres más valientes se lanzaban a las riendas de los caballos y dar vueta (sic) *á los coches hacia Lasarte.*

Mientras en la Plaza Mayor se veían Guardias de a pie que hiban (sic) *y venían al Telefono* (sic)*; así como la Madre Superiora Sor Patocinio* (sic) *para ponerse al habla con su Majestad la Reina Mª Cristina; las campanas no cesaban de tocar, hera* (sic) *una angustia y nerviosismo terrible por el que el pueblo atravesaba; se sacaron los enfermos a casas particulares, y el Santísimo a la Parroquia para dar fuego al hospital ya que el pueblo estaba dispuesto á construir otro antes que consentir entrada á dichos enfermos.*

A las tres horas el pueblo venció por su unión y el buen corazón de su Majestad la Reina que dio orden al Gobernador de no trasladar á los enfermos á esta; a las dos de la tarde volvio (sic) *la calma y tranquilidad para un pueblo que lucho bien unido; los hombres volvieron a sus puestos de trabajo como si nada hubiera ocurrido.*

A las 7 de la tarde marcharon los hobreros (sic) *y monjas a Lasarte, siendo despedidos por el pueblo en masa; al cabo de mes y medio regresaron, hubo una preciosa procesión con la Milagrosa y un Tedeum en la Parroquia en acción de gracias.*

Al domingo siguiente hubo festejos y banquete en el Paseo de los Tilos así como bersolaris (sic) *así como una Sra que canto unos bersos* (sic) *preciosos siendo muy aplaudida dicha Sra hera* (sic) *Dna Josefa de Ortiz*[2].

Todo termino felizmente lo que podía haber sido un día de luto para Hernani

Se coloco (sic) *una placa en Cincoenea ¡Avenida del 2 de abril!*

(Hernani 2-2-1977) F. G.

---

[1] "Famoso fue el grave incidente que provocó el 2 de Abril de 1.918 el traslado de unos enfermos variolosos desde Lasarte hacia Hernani, lo que provocó la repulsa del pueblo, que unido salió al encuentro de la caravana e hizo retroceder a los enfermos, provocando una alteración de orden público que le costo el cargo al Gobernador. Para conmemorar el hecho de la llamemosle heroica defensa de la salud de Hernani, se colocó una placa conmemorativa en la carretera que arranca desde el convento de las Agustinas hacia el barrio de las Villas" (BLAS ZULETA, Luis. *Hernani entre dos guerras 1872 – 1936. Medio siglo de la vida en Hernani.* Hernaniko Udala, 1985; pag. 28). Ver también: HUA / AMH // A-14-5/1. Viruela. Documentos relativos al desarrollo de esta epidemia... Contiene además, documentación relativa al incidente ocurrido a propósito de la hospitalización de varios casos presentados en Lasarte.

[2] GOROSPE PASCUAL, Begoña. *Orduan eta orian* en Hernani 1993 urtekaria. Hernaniko Udala, 1983; pag. 53-58.

ELUR TXORI ELKARTEA 1957-2007, 50. URTEURRENA


Inaxio Sanz

1957. urtea zen eta Gerra Zibileko unerik gogorrenak paseak ziren dagoeneko. Hernanin industriaren ugalketa puri-purian zegoen eta herriko biztanle kopurua pixkanaka gora zetorren. Bizimoduaren aldaketaren ondorioz, jendearen aisialdirako guneen beharrak hainbat elkarteren sorrera ekarri zuen, horien artean Elur Txori Aisialdiko Elkartea.

Elur Txori Elkartearen sorrerako dokumentazio faltak zaildu egiten du elkartea osatu ondoren egin ziren lehenengo urteen berri jakitea. Informazio hau lortzeko asmotan elkartearen sortzaile taldeko hainbat kiderengana jo dugu, dokumentuetan ez datorrena eurek argituko digutenaren esperantzarekin.

Garai haietan bazen dagoeneko elkarterik Hernanin, Santa Barbara Elkartea hain zuzen. Hau ikusirik herritar talde bat Elur Txori Elkartea sortzera animatu zen. Sortu aurretik bilerak non egin ez zutenez, Andrekaleko Bodega tabernan elkartzen ziren. Ondoren ordea Oarso kaleko 1 zenbakiko lokalaren erdia erostea lortu zuten eta hura atontzeari ekin zioten. Lan askoren ostean, 1957ko azaroaren 30ean Elur Txori Elkartean estatutuak legeztatu ziren.

1958ko urtarrilaren 4an lehen zuzendaritza batzordea aukeratu zen: lehendakari postuan Joxe Elizegi jarri zen; lehendakariorde, Joxe Mari Irastorza; idazkari, Pepe Martinez; diruzain Juan Ayerbe izan zen eta batzordeko kideak Satur Urbialde, Andres Arruti, Antonio Fernandez, Rafael Rekalde eta Juan Otamendi izan ziren. 1958ko otsailaren 2an ireki zituzten lehenengo aldiz lokal berriak. Urte horretan bertan Tolosan ospaturiko Gipuzkoako Abesbatzen txapelketan Hernaniko Elur Txori eta Udaberria abesbatzek hartu zuten parte, 2. eta 3. postuak lortu zituztelarik hurrenez hurren. Elur Txoriko abeslariak Schola Cantorum-eko partaideak ziren.



Elkarteko bandera bedeinkatu egin zen egunean. Hainbat bazkide artean Joakini Zubeldia, bandera eramaten duena.

Elur Txori Elkartea oso loturik egon zen hasieratik Hernaniko herriarekin eta herriko gainontzeko elkarteekin, hainbat ekintzetan parte hartu duelarik hasieratik. 1959an, adibidez, Luis Otaño txirrindulariari Elur Txorin egin zitzaion omenaldian, herrian elkarte berri bat sortzekotan zeuden taldetxo bat bildu zen eta omenaldi horretan bertan egun Peña Otaño Elkartea dena sortzeko aurreneko pausuak eman zituzten.

1969an Orbegozo Burnigintzako langileek egin zuten greba babesteagatik eta poliziaren jarrera gogorra gaitzetsiz elkarteak aurkeztu zuen kexagatik, hiru hilabetez itxi zuten. 1971tik 1978ra bitartean, aldiz, Hernani Arraun Elkarteko kideek biltzeko lekurik ez zutela eta, Elur Txorik bere lokalak utzi zizkien bilerak egiteko. Urte tarte horretan, herrian egiten zen kultur hamabostaldia zela eta, Barcelona Futbol Taldeko jokalariak eta ordezkari batzuk (Kubala famatua tartean zela) Hernanin egon ziren. Gauean Elur Txorin ospatu zuten afaria, oraindik ere Elkarteko paretan haiek eskainitako oroigarria ikus daitekeelarik. 1979an, aldiz, Hernani mailan egindako Lehenengo Bertso Txapelketa ospatu zen, hain zuzen, Elur Txori Elkartean, garaile "*Aterpe*" izan zelarik. DYAren alde dirua biltzeko ere egin izan dira ekintzak urte askotan zehar, urtezahar egunean hain zuzen, Santa Barbara eta Elur Txori Elkarteen arteko futbol partida jokatzen zen Txantxillan jende asko inguratzen zelarik hura ikustera.



Urte zahar egunean (1981) jokatzen zen Santa Barbara eta Elur Txori arteko futbol partidua.

1958	Joxe Elizegi	**1983**	Martin Zabalegui
1959	Joxe Elizegi	**1984**	Batis Larburu
1960	Juan Ayerbe	**1985**	Batis Larburu
1961	Joxe Elizegi	**1986**	Javi Del Valle
1962	Teodoro Setien	**1987**	Javi Del Valle
1963	Atanasio Lapazaran	**1988**	Joxe Ezeiza
1964	Joxe Pineda	**1989**	Alfonso Loran
1965	Joxe Elizegi	**1990**	Alfonso Loran
1966	Joxe Elizegi	**1991**	Joxe Joakin Esnal
1967	Joxe Larrañaga	**1992**	Agustin Kerejeta
1968	Joxe Ezeiza	**1993**	Agustin Kerejeta
1969	Joxe Laburu	**1994**	Joxan Olano
1970	Joxe Elizegi	**1995**	Joxan Olano
1971	Joxe Elizegi	**1996**	Mikel Aierdi
1972	Joxe Elizegi	**1997**	Mikel Aierdi
1973	Joxe Elizegi	**1998**	Peli Goya
1974	Joxe Elizegi	**1999**	Peli Goya
1975	Joxe Angel Zarra	**2000**	Koldo Monge
1976	Joxe Angel Zarra	**2001**	Koldo Monge
1977	Ramon Imaz	**2002**	Mikel Armendariz
1978	Agustin Arrieta	**2003**	Mikel Armendariz
1979	Agustin Arrieta	**2004**	Pedro Elizondo
1980	Iñaki Apezetxea	**2005**	Pedro Elizondo
1981	Iñaki Apezetxea	**2006**	Casiano Garcia
1982	Julian Rodriguez	**2007**	Casiano Garcia

1989ko urtarrilaren 15ean, eztabaida askoren ostean, emakumezkoei asteburuetan ateak zabaltzea erabaki zen. Urte batzuk beranduago, asteburuetako muga kendu eta edozein egunetan sartzeko aukera izango zuten. Azkenik 2007ko urtarrilaren 14an emakumezkoei bazkide izateko eskubidea onartu zitzaien.

Elur Txori Elkartearen 50 urteko historia honetan pertsona asko izan da zuzendari lanetan. Hauek dira 1958tik hasi eta gaur arte izan direnak[1].

Elur Txori elkarteak 50 urte hauetan hainbat ekintza eta ospakizun burutu ditu. Besteak beste hauek dira azpimarragarrienak:

Urteurreneko bazkaria.

Otsailean ospatzen da urtero elkarteak ateak ireki zituela ospatzeko. Egun honetan hildako bazkideen alde meza egiten da. Garai batean Errukietxean bazkaria ematen zen (egun Ongintza Patronatuaren Zaharren Egoitza dena). Berezitasun bezala 1982an Errukietxera eramandako bazkariaren osagaiak dituzue hemen: oilo salda,

[1] Gaur, 2008. urtean Fernando Quijera da zuzendaria (lehendakaria).

oilaskoak eta paella egiteko pusketak, txorizoa (2 Kg.), arkumea egosteko (12 Kg.), alkatxofak (7 pote), ilarrak (7 pote), arroza (3 Kg.), sagarrak (10,6 Kg.), laranjak (12,5 Kg.), gozokiak (42 poltsa), zigarro puruak eta zigarroak, sagardoa (12 botila), ardoa (30 botila), koinaka eta anisa. Postrean Zuzendaritza Batzordeko batzuk joaten ziren.

Kaldereroak.


Elur Txori Elkarteak 1961az geroztik antolatzen du konpartsa hau. Antolakuntzan herritar askok eman du laguntza eta hauen artean badira batzuk aipatu gabe ezin ditugunak utzi.



Elur Txori elkarteko hainbat bazkide 1982ko Kaldereroetan.

Etxeberria ijitoek, euren flota osoa uzten zuten konpartsaren antolakuntzarako: zaldiak, karroak... *Mallus baserriko Luzianok* ere zaldia ekartzen zuen. *Epele jatetxeko nagusiak Luis Lizeagak* karruaje zoragarria uzten zigun, *Joakin Arregik "Kapote"* zaldi eta karroa uzten zituen, *Joxe Mari Balerdik* ere zaldia, *Etxenikek "Ezkerra"* zaldia eta karroak, *Txoko baserrikoek* traktorea eta *Joxe Inazio Otxotorenak* todoterrenoa. Azpimarratzekoa da ere urteetan zehar *Gregorio Mitxelenak* karroen muntaian eman duen laguntza eta zer esanik ez, *Karmen Clementeren* lana, urtez urte Kaldereroetako erreginak jantzi eta margotzeaz arduratzen baita. Hauek guztiak egin izan dute Kaldereroen konpartsa urteetan zehar hain koloretsu eta alaia, eta parte hartu duten herritar guztien laguntzarik gabe, ez litzateke posible izango antolakuntza aurrera eramatea.

Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak gogor lan egiten zuen egun horretan dena ondo atera zedin. Goiz hasten ziren dena prestatzen: afaria presta-



1990 KO EKAINA'REN 27'AN HERNANI'N

EUSKAL JAIALDIA

ELUR-TXORI ELKARTEAK antolatua

UDALETXEAK babestua

HERNANI, 27 DE JUNIO DE 1990

GRAN FESTIVAL VASCO

ORGANIZADO POR LA
SOCIEDAD ELUR-TXORI
Y
PATROCINADO POR
EL ILUSTRE AYUNTAMIENTO

1990eko Euskal Jaialdiaren programaren azala.

Kalejira:trikitilariak ZUNZUNEGI ANAIAK.

Eguardiko 12,30 etan:

TILOSETAKO IBILTOKIAN

Jose Mari Arrieta gai jartzaile delarik

XABIER EGUZKITZE - ION SARASUA - LAZKAO TXIKI

bertsolariek parte hartuko dute.

Arratsaldeko 5 etan:

KALEJIRA

Arratsaldeko 5,30 etan:

ATXEGINDEGI FUTBOL ZELAIAN

1 — Bertsolarien saioarekin jaialdiari hasiera emango zaio.

2 — **IÑAKI PERURENA** eta **MIKEL SARALEGI.**
Leitzatar harrijasotsaileen saioa izango da, beraiei ospea eman dienetariko harri batzuekin.

3 — Ahari talka.

4 — Haizkolarien desapio-exibizioa

MINDEGIA - OLASAGASTI
kana erdiko 12 enborrekin lana egingo dute. **AGITEK** 6 metro altuera duen enbor bati korteak eman australiar erara.

5 — TXINGA lasterketa, sari ederrez horniturik.

1.º	8.000 pta.	2.º	6.000 pta.	3.º	4.000 pta.
4.º	3.000 pta.	5.º	2.000 pta.	6.º	2.000 pta.

6 — Amaiera, bertsolarien saioak azken agurra jaialdiari.

7 — Albokak, dultzaineroak eta trikitisak izango dituzue atsedenaldietan.

1990eko Euskal Jaialdiaren edukia.



17. Hernani – Leiza (1976). Ibilaldia oinez egin zuen taldea.

gu argitaletxe, banatzaile eta irakurleekin. Argitaletxeetatik zuzenean ere bidaltzen zizkiguten liburuak. Esan bezala, esperientzia eta gertutasuna izan da gure oinarria eta beti aurrera begiratuz aritu izan gara gure eguneroko jardunean. Uste dugu horri esker mantendu dugula hainbeste urtetan gure eskaintza.

Baina urteak pasa ahala –dio Enrikek– aurrera begira irtenbideren bat aurkitu beharrean geunden. Joxeanek bakarrik jarraitzeko... lan handia da pertsona bakarrarentzat. Horregatik, inolako presarik gabe, Elkarrekoei proposamena egitea pentsatu genuen eta haiei egokia iruditu zitzaien. Beraz, adostasun batera iritsi eta aurrera egin genuen. Eta horixe...

Zuen laneko ibilbidean zein liburu mota izan da gure herrian gehien saldu duzuena?

Galdera horren erantzuna ez da batere erraza. Ez da erraza, zeren adinaren eta garaiaren arabera, halako liburu mota. Nagusiki gehien-gehiena esan beharko bagenu, alde batetik, testu liburuak eta, bestetik, literatura liburuak esan beharko genuke. Baina horrez gain, bidaia liburuak ere asko saldu izan ditugu. Badakizue, bidaiatzea oso modan dago gaur egun...

Eta irakurle aldetik, zein irakurle mota dago gure herrian?

Irakurleak ere askotarikoak dira. Hor izan ditugu irakurle txikiak, irakurketaren magia deskubritzen dutenean liburuan zer aurkituko irrikaz daudenak. Gero gaztetxoak datoz, ikastolan agindutako edo gomendatutako irakurgaiak irakurtzen dituzten horiek. Eta helduen munduan sartzen bagara, berriz, denetik daukagu. Durangoko azokarako argitaratutako liburuek, sona handia ematen zaienez, badute irteera. Orain, baita ere, best-sellerrak asko saltzen dira; hau da, kanpotik etorritako liburuek marketing handia baitute. Esate baterako, Harry Potterren liburuak, Ken Folletenak... Baina liburu bereziak ere ateratzen dira.

Irakurle mota zabala izan dugu, gure liburu-dendan inguruko herrietako jendea ere hor izan dugulako. Bai Goizuetatik, Aranotik, Urnietatik, Astigarragatik... eta baita Donostiatik ere. Egia da dendan liburu asko izan arren, askotan eskatutako liburua ez genuela bertan izaten, baina ahalegintzen ginen ahalik eta azkarren gurera iritsi zedin, bezeroaren eskuetan jartzeko. Behin baino gehiagotan gertatu izan zaigu, hainbeste liburu aurrean eta eskatutakoa falta. Baina eskatu, eta aurrera... aurretik jakin izan bagenu jendeak zer nahi zuen...

Liburuez gain beste zenbait material ere saldu izan duzue liburu-dendan...

Bai, papertegiko material ugari genuen salgai. Liburu hutsera ezin zara mugatu herri batean. Gurera mota askotako jendea hurbiltzen zen, arotzak arkatz lodiaren bila, bildumagile edo kolezionistak sailkatzaileen bila, esku-lanetarako paper berezien bila... bazen jendea propio gurera etortzen zena beste inon aurkitu ez zuelako. Eta urtetan gure bezeroak izan dira. Hori oso pozgarria da, jendeak asko eskertzen baitizu...

Ba horrelaxe, zuek zuena egin duzue eta orain besteek egin dezatela eurena.

Ba, bai. Halaxe da, guk lan horrekin bukatu dugu eta orain besteen eskuetan dago. Elkarrekoek ere urte askotako esperientzia dute eta herriarekin asmatuko dutela esango genuke.

Elkarrizketa bukatu baino lehen, guk gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu gurekin gogoratu zaretelako, eta bide batez aprobetxatu nahi dugu gure inguruan ibili diren guztiei bihotz-bihotzez eskerrik beroena emateko.

Egin diguzuen harreragatik eskerrik asko zuei ere.


Kale Nagusiko 28. zenbakiko Lete liburu-denda "zaharra".

Hauxe da Joxean eta Enrikerekin, Lete liburu-dendako jabeekin, egin dugun berriketaldia. Oso gustura entzun ditugu kontatu dizkigutenak eta liburu-dendara joateari utzi ziotenean, hasiera batean gogorra egin zitzaiela esan badigute ere, orain bizitza lasaiagora ohituta lasaiago bizi direla esan digute.

NIRE HERNANI

Uxue Apaolaza

Hernani herri bat da, baina ez hainbeste, haziz-haziz joan da hogei mila inguru begirada biltzeraino, baina ez da hiri izatera ere iristen. Dena baino, dela uste duguna, bakoitzaren Hernani, eta izatea nahi genukeena. Nik nahi nuke adibidez Zinkoenearaino igo behar dudan aldapa elektrikoa izatea, eta baita plazarainokoa ere ahal balitz (Gasteizko alde zaharreko ranpak inportagarriak iruditzen zaizkit) kotxerik gabeko herri batean. Ez genuke Eroskira sartzera itxoin beharko eskailera elektrikoen plazera sentitzeko.

Denbora luzez ibili gabeko bideak izanik ere, ume ginenean ezagutuak begiratu gabe zeharka ditzakegu, haurtzaroan burmuineko GPSren bat elikatuko bagenu bezala, horregatik denda berriek, etxe eraiki berriek, Agustinetako plaza berrituak baizik ez ditut bereizten.

Inertziaz atera zait "*Iepa*". Ez dakit ez ote dudan ezustean harrapatu, bekainak altxatzeko baino denbora eman ez dionez. Ez dakit zergatik ezaguna egin zaidan bere aurpegia; beharbada ezagutzen ez dudan aurpegi ezagun bat besterik ez da, Hernani bezalako herrietan hain ohikoak, Thailandian topatuz gero baizik agurtu behar ez diren horiek, eguneko tabernan topatu arren.

Plaza Berriko kafetegi honetan turistatzat sentitzen naiz, miradore tankera du; eguzkiak jotzen dit aurpegian sonbrilaren itzala mahaitik urrun geratzen denez, haurren algarak eta gurasoen zurrumurrua entzuten da, plaza baino parkea bailitzan; ur hotsa baizik ez da falta.

Nola ezagutu nuen gogoratzen ez dudan neska bat dago pare bat lagunekin, garai hartan ere lagun zituen berberak. Begiratu egin nau; "*ezagutzen zaitut eta horregatik begiratzen zaitut normala baino apur bat luzeago, ume batekin zaudelako ere bai, eta zuk ere normala baino luzeago begiratu ez baninduzu ez zintuzkedalako ezagutuko; lodiago zaude, eta a ze titi puskak*". Hori guztia irakurri uste izan dut bere begietan kafesneari azukrea katiluari begiratu gabe botatzen diodan bitartean.

Begira ari zitzaidan beste neska bat ere, nire soarekin berea topatu denean bekainak altxatu dituena irribarrea ote zen ez dakidan keinuaz, ez dakit harriduraz edo sinpatia sutilez. Maja zen, eta konta dezaket hori frogatzeko anekdota pare bat, estetikoak, "saber estar" eta horrelako espresioez.

Gorroto begiradaren bat ere irakurri nahiko nuke, baina ezta hori ere. Gogait keinuren bat irakurri dut mutil baten begietan, batzuk ez digute inoiz barkatuko koadrilako itsusiei galdu arazi genien denbora.

Haurrak jolasean dabiltza, gurasoak oparotasun aurpegiz, irribarre eta kezka oparoak, kioskoa besoak zabalik, eta paper artean egunkaria eskatzetik baino ezagutzen ez dudan begirada dagoeneko etxekotua. Ura falta zaio plaza honi esan bezala, ur musika pixka bat, iturri handi bat, ura edateko balio ez duten horietakoa, ikusteko bakarrik. Txorien doinua entzuten da, eta kanpaiena noizean behin, haurrena, eta mahai eta bankuetatik marmarrak. Berria denak ez ditu ikusten aulkitik aulkira, bizkarren artetik dabiltzan gorrotoak.

Kioskoaren atzetik pasa zara zu, miopea naiz eta hala ere lehen behakoan ezagutu zaitut, ibileragatik, argala izateko daukazun modu horregatik, kamiseta zuri eta galtza motz bakeroez. Nire alaba berriak ez zaitu ezagutuko, eta ez ditu sumatuko amak eta gizon argalak elkarri eskaini dizkioten begiradak, inoiz gurutzatu gabe.

Tilosetan igo behar den aldapan ere jarriko nuke ranpa bat, beti pentsatu dut, baina orain haurraren karrotxoarekin, are gehiago. Hemen mahaiak ilunetik eguzkitara doaz plaza nagusira hurbildu ahala; ni terraza batetara eguzkiagandik ihesi joaten direnen aldean jarri naiz. Umeak dabiltza hemen ere, eta gurasoak beraz, hogeita hamar urtetara iritsi eta denak haurdun geratuz joan gara, adin kontua balitz bezala, zimurrak bezala, haurdun geratzearena.

Ostras, ez nintzen berarekin gogoratu ere egiten, begirada berdinarekin jarraitzen du. Orduan miopia edo izango zela uste nuen, kalean ondo ondotik pasa eta ezagutzen ez zintuelako, baina ez da hori, paso egiten du, burbuila batean bizi da opio dosi batzuk tarteko, begietan orduan identifikatzen ez nuen hezetasunaz, eta ninien diametroa zabal-zabalik, keinuen kadentzia. Alabak lo jarraitzen du, baina ez geratzea erabaki dut azkenean; bakarrik etortzeko bai, baina hotz dago itzalgune hau eta esnatu egingo zait azkenean.

Nik musika kioskoaren eta terrazen artean dauden zuhaitzak moztu eta sonbrilak jarriko nituzke. Eta jazz talde bat kioskoan, erreformatu ondoren noski. Ez nintzateke proposamen hori serio egitera ausartuko alkatea izanik ere.

Amaren nagusiaren semea dator aldapan behera umearekin; begirada informatibo edo elkarrizketa sortzailea gurutzatu dugu irribarre batez; nik etxean bera ikusi dudala esan dezadan, berak lantokian nire amari ikusi nauela esan diezaion.

Zu eguzkiaren aldean ikusi zaitut, baina niri asko kostatzen zait haraino joatea. Etxera noa, umea amarekin uztera, gaua niretzat izan dadin.

Etxerako bidea aldapan behera baldin bada ere, eskertuko nuke oinez ez ibili beharra, gau bakartian edaniko zerbezek belaunak ahultzen baitizkidate. Tabernako euforiaren ondoren malenkoniatsuak dira bakardadean ibiltzen diren itzulerak. Belarrien parea, buru barruan, gainkargatua sentitzen dut, gaua hantxe pilatu balitzait bezala, baina gauza zehatzenak orden narratiborik gabe etortzen zaizkit, flash eran. Begiradak batez ere, nik nire erara irakurri ditudanak errealitatearekin zer ikusi handirik gabe ziurrenik. Politikaz eztabaidaren bat, ez, ez dakit erantzun diodan, ezetz uste dut, baina erantzun gabe utzitako guztiak bezala luzeago geratuko zait buruan, batez ere politikari buruzko eztabaidak oso gutxi bilakatu direnaren sentsazioa, nire lehengo argudioak orain nire aurka erabiltzen direla konprobatzea. Seme alabak, gurasoen lagunen seme alabekin oheratzen dira. Ni ez naiz betiko tabernatik mugitzen hainbeste urteren ondoren. Eta zergatik itzultzen da bat herrira? Haurrak izan ondoren batez ere; horregatik beharbada, herriak egokiagoak dira umeentzat, eta guri ere amaren altzoaren mirak gehiegi pisatzen digu munduan zehar galdurik ibiltzeko. Jaioterria ama bat bezalakoa da, horregatik ez digu aldatzen uzten, jaioterriarentzat beti gara bere alabatxoak, errieta egiten digu, zaplaztekoren bat eman noizean behin, inorenak baino mingarriagoak, baina haserretzen bagaitu, betiko saiatuko gara bakeak egiten (pertsona batzuk betirako galdu edo gustu handiz bide bazterrean utzi arren). Eta guri Hernani tokatu zaigu. Onak edo txarrak, gauza ezagunak gustatzen zaizkigu, urtetik urtera gutxi aldatzen direnak.

Ez da hala ere nik bizi dudan herria nire gurasoek bizi zutena, antza dute, baina ezberdinak dira, beraiek nirea ia ez ezagutzeraino. Eta nire alaba nirea ez den Hernani batean biziko da; mendetako herentziaren kargak pisua galtzen duen segundoan (a ez, ez zen horrela).

Baina gaur batez ere zu ikusi zaitut tabernatik irtetean, eta irribarre egin didazu, eta inor ohartu gabe eskua ukitu. Eta hori da dena.

URTEURRENAK 2008
LUTO EN LOS SANJUANES DE 1978



Se han cumplido 30 años del trágico accidente ocurrido el 25 de junio de 1978. Durante la celebración de una regata de bateles se vino abajo, al romperse uno de los cables que sustentaba su estructura, el puente colgante de Elorrabi. Fallecieron 6 personas: Mª Pilar Arrieta Iraola, Fernando Estrada Coito, José Ignacio Zuloaga Azkune, Sebastián Sagardia Olano y los hermanos Bautista y Karmelo Izeta Pagola.



MAITASUNEZ SORTZEN DEN MUSIKA...[1]

Axun Larburu

Zortzi urte zituela ekin zion Maite Larburu Garmendiak biolina jotzen ikasteari, gure herriko Musika Eskolan. Eta Donostiako Musika Kontserbatorioan amaitu zituen Goi mailakoak, 20 urte zituenean. Ikasteko grinak eraman zuen 2002an Maite Holandara, eta beso zabalik hartu zuen Herbeheretako Amsterdam hiri kosmopolitak. Orduz geroztik, bertako Kontserbatorioan aritu da ikasten, eta Europako zenbait herri eta hiritan kontzertuak eskaintzen. 2007ko udaberrian amaitu berri du bere tesia, antzinako eta egungo biolinen arteko aldeak azaltzera datorrena. Lehenaldiari eta etorkizunari begira baino, unean unekoari erreparatzea maite du Maitek. Eta biolinaren sokak maitasunez laztantzen ditu, guk musika hain hurbil eta hain sakon izan dezagun.



"Kantatu, aita, kantatu!" eskatzen zenion aitari txiki-txikitan, gogoratzen al zara?

Ez naiz ba gogoratuko! Batez ere etxekoek kontatu didazuenagatik... Kantatu, asko kantatu dugu beti familia artean. Kantuak eraman ninduen musikarantz, biolinerantz...

Kantu eta dantza amaitzen dira batzuetan-eta etxeko ospakizunak...

Egia da hori. Askotan galdetzen didate gure familian musikaririk ba ote den, eta ezetz esaten dudan arren, ez dakit ba, musikarekin modu batera edo bestera oso loturik gaudela iruditzen zait...

Klasikoa ez zen musika entzuten zenuen etxean batik bat txikitan, ezta? Nolakoa?

Lehendabizi, gurasoen gustuko musika. Zenbat aldiz entzun ote dut Antonio Machin-en cassette bera kotxean, hara eta hona genbiltzala! Eta anai-arreba zaharragoen musika ere

[1] Elkarrizketa 2007ko udaberrian egin zen.

entzuten nuen... Beatles-ak, Rolling Stones-ak, Simon and Garfunkel, La polla records, The Smiths, The Clash, Tom Waits, Itoiz, Ruper Ordorika... Halere, zenbait musika klasikoko disko ere bazeuden etxean, Bach, Vivaldi, Mozart... xeoxe.

Klasikoa deitzen zaion musika hori nola definituko zenuke?
A zer nolako galdera zaila... Europar tradizioko gizarte klase altuko musika da musika klasikoa, folklore eta musika herrikoitik bereizten dena...

Eta klasikoan barroko garaikoa hautatu duzu, zergatik? Nolakoa da?
Tira, Barroko garaikoa bakarrik ez dut hautatu. Esan dezagun antzinako musika instrumentu orijinalekin interpretatzea hautatu dudala. Errenazimendu, Barroko, Klasiko, Erromantizismo garaiko musika orduan erabiltzen zen biolin motarekin jotzea aukeratu dut. Halere, musika garaikidea jotzen dudanean, gaur egungo biolin "modernoa" erabiltzen dut...

Anaia musikari lotua, baita gure amona ere...
Bai, biek gauza hagitz ezberdinak egiten. Anaia soinu teknikari bezala eta amona berriz Urte Zaharrero ezpainetako harmonika astinduz... Amonarengandik lotsagabekeria nahi nuke eta anaiarengandik, musika entzuteko duen belarri fina...

Zergatik biolina?
Galdera honi ezin diot argi erantzun eta askotan galdetu didate. Uste dut, amari oparitu zioten Vivaldiren Lau Urtaroen cassette zahar baten eraginez izan zela... Halere, hor zeundeten anaia eta zeu ere, amak akordeoia jo nezan nahi zuela esaten zuenean, zuek biak ezetz...

Zein da biolinaren lekua Euskal Herrian?
Leku txikia, nahiz eta oso instrumentu folklorikoa izan. Ez dago biolina ikasteko ohitura handiegirik...

Isiltasunaren eta soinuaren arteko zure harreman perfektua, zein da?
Oso gutxitan entzuten dut musika, egunean jotzen dudanaz gain, gutxi.


Maiteri bidaiatzeko garaia heldu zitzaion, beti biolina bizkarrean hartuta.

Isiltasuna asko maite dut, musika entzuteak esfortzu berezia eskatzen dit.

Hernaniko Musika Eskolako Eduardo Lassalettak harri bitxia zinela esaten zion amari, zer izan zen bera zuretzat?
Bihotz handiko gizona, musika asko maite zuena. Musika maitasunez jotzen erakutsi zidan eta hori, orain arteko ikasgairik garrantzitsuena izan da...

Eta Donostiako Kontserbatoriotik ateratako ikaspena?
Musika instituzio bat baina askoz gehiago dela...

Jendaurreko zure lehenengo emanaldia?
Hernaniko Udaletxean, zortzi urte nituela.

Eta azkena?
Stockholmen...

Gogoangarriena?
Bartzelonan, Palau de la Musican, gutxitan jo dut halako zoriontasunarekin...

Musika ikasketak eta lagunartea uztartu ezinak al dira?
Ez. Baina pittin bat bereziak gara musikariok, bakarrik ordu asko pasatzen ditugu. Lagun ez musikariak beste klasekideekin dauden bitartean, gu geure instrumentuarekin izaten gara...

Noiz ikasten da biolina jotzen ikasten?
Urte askoren buruan. Oraindik horretan nabil... Nola denbora tarte gutxienari etekin gehiena atera...


Maite, orain dela urte batzuk, Nikanor Zabaleta saria irabazi zuenean.



Maite, zutik, Hernaniko Kultur etxean, 2006ko abenduan, emandako kontzertuan.

Nikanor Zabaleta saria entzutean zer datorkizu gogora?
Poza batez ere. Horrez gain, beste urtebetez ikasi ahal izatea eskaini zidan eta, bestetik, biolin hobea erosteko aukera.

Bost urte Amsterdamen, nola hartu zaitu hiriak?
Besoak zabalik... Ez nau inoiz ito nahi izan, baina ezta besarkatu ere...Hiria sekulakoa da, hain irekia, hainbeste aukera, musika bizitza hain zabala... Soziala ez hainbeste igual...

Zer dago han hemen falta dena?
Kulturarekiko harremana.

Zer dago hemen han falta dena?
Etxea, maiteak, mendiak, janaria...

Nola ikusten da atzerritik Euskal Herria?
Polita, menditsua eta urrun...

Nola ikusten dute atzerrian Euskal Herria?
Indartsu.

2006ko abenduan Hernaniko Kultur Etxean jo zenuen Alea Ensamble taldearekin, zer moduz?
Oso ongi... Pena, jende gehiegi etorri ez izana, baina etorri zirenak kontentu sumatu nituen.

Tesia amaituta aldaketa urtea datorkizula dirudi: Stockholm, Bartzelona, Zaragoza, Frantzia...liburuak itxi eta bidaiatzeko garaia heldu al zaizu?
Hala dirudi. Beti bidaian biolina bizkarrean hartuta,... bere gauza on eta txarrekin.



Noiz entzun ahal izango dugu Maite Larburu ostera ere gure herrian?
Hernanin ez dakit... Euskal Herrirako izan ditut eskaintzak baina ezinezkoak izan dira... Bilbon halere, urtarrilean, "Al ayre espagnol" taldearekin egongo naiz.

URTEURRENAK 2008

CENTENARIO DEL NACIMIENTO DE JOSÉ MARÍA GONZÁLEZ BASTIDA, DIRECTOR DE LA BANDA DE MÚSICA DE HERNANI ENTRE 1931 Y 1944.[1]

MUSIKASTE, en su edición de 2008, ha programado en recuerdo del que fuera entre 1931 y 1944 director de la Banda de Música municipal de Hernani, **JOSE MARIA GONZALEZ BASTIDA**, un concierto de txistu con varias de las piezas por él creadas. Se celebraba el centenario de su nacimiento[2].

Nació en Bergara el 10 de septiembre de 1908. Es en su localidad natal donde comienza sus estudios musicales, de la mano de su padre, director de la Banda de la localidad. Pronto, a los 8 años, ya forma parte, como flautín, de esa agrupación musical. Poco a poco va ampliando sus estudios de armonía y composición, y... suple a su padre como organista en la iglesia parroquial de esa localidad del alto Deba.

En 1931 obtiene la plaza, por oposición, de director de la Banda municipal de Música de Hernani. En ella permanece hasta 1944, cuando es nombrado director de la Banda Municipal de Vitoria. Durante estos años, más concretamente en 1935, gana el primer premio en el Concurso de obras vascas organizado por el Orfeón Donostiarra con su obra *Gabon gabean errondari*, y se estrenarán sus obras *Misa en Fa, Miserere* y *Christus factus est.*

En 1958, asume la dirección del Coro Easo con el que consigue grandes éxitos.

En su currículum, repleto de premios de composición caben destacar obras como: la *Suite Vasca del Sol* y *Tríptico Vasco* para orquesta; el poema sinfónico *Etsai larre;* el sinfónico-coral *Iñigo de Loyola;* las zarzuelas *La novia del mar* y *La Virgen de Piedra; Miserere mei Deus* para coros y orquesta y gran cantidad de obras corales para voces mixtas e iguales. Es importante igualmente, su obra para txistu (durante muchos años fue director de los alardes de txistularis celebrados en San Sebastián, Bilbao, Pamplona, etc.).

Falleció en San Sebastián el 27 de septiembre de 1997.



José María González Bastida durante un acto celebrado en el Paseo de los Tilos.



Banda de Música de Hernani, fotografía de 1931.

[1] Documentación e información facilitada por ERESBIL Musikaren Euskal Artxiboa.

[2] Casualmente, en 2008, se han cumplido 25 años del fallecimiento, a los 54 años de edad, del que también fuera director de la Banda hernaniarra, José Antonio Ruiz - Bona.

TXABOLATEGI BERTSOLARIA, ANTZINAKO BERTSO DESAFIO HANDIENEN PROTAGONISTA

Unai Agirre

Urumea erreka bertsolarien kabi izan dela esaten duena ez da oso oker ibiliko, historiari begira zerrenda oparoa osatuko baitu. Errio horrek zenbat bertso ez ote du eraman?

Baina eraman ez ezik geratu ere egin dira batzuk, eta guganaino iritsi den aipamenik zaharrena da Jose Joakin Erroizenea Intxauspe *Txabolategi* bertsolariarena.

Orduko kroniken arabera Gipuzkoako bertsolaririk onenen artean zegoen Txabolategi, Fernando Amezketarra, Amezketa bertako Zabala, Tolosako Altamira eta abarren artean. Fernando eta bien arteko desafio-bertso hauek famatuak dira, bederatzi puntuko motzean, Txabolategi eta Hernaniko beste bertsolari bat Lekunberrin beste bi bertsolarirekin aritu eta egun gutxira boteak (entzuleen artean omen zen Ametza bertsolaria, minduta, Txabolategik Amezketarrak goratu zituela eta).

Txabolategik:
Fernando ta Zabala
Herri batekoak
Badakit zeratela
Koplari bapoak
Ez izanagatikan
Zuek hainakoak
Gu ere egin ginduzen
Zerbait Jaungoikoak
Lehengo apustukoak
Napar herrikoak
Lekunberrikoak
Ziraden pijoak
Askoz hobeak gaituk
Hernanikoak.

Fernandok:
Ametza omen dago
Gizon harritue
Itxuraren kontrako
Entenditue
Honetxek jartzen digu
Kontu luzitue
Gu gehiago garela
Ezin sufritue
Kantuzko pleitue
Behartzen gaitue
Galduko zaitue
Jarri nahi gaitue
Amezketak zedukak
Kantuz kreditue.

Hariari tiraka.

1769ko martxoaren 2an jaio zen Jose Joakin Erroizenea, Ereñotzuko Txabolategi baserrian. Hil zeneko data garbirik ez dago, baina jakinekoa da nola hil zen, aurrerago azalduko dugun moduan. Bestalde, Tolosan hil zela diotenak ere badira, gaizkitu zenean senideren batengana joanda edo, baina datu hau baieztatzen duen agiririk ez da azaldu orain artean. Bere bizitzan hamaika bertso botea behar zuen eta gutxi batzuk ahoz aho iritsi dira ia gaur arte, harik eta Antonio Zabalak Auspoa saileko liburuetan (***Txabolategiri, Elkoro eta Leunda Bertsolariak***, 142 zenbakia; eta ***Pernando Amezketa bertsolaria***; 54 zenbakia) eta Juanito Dorronsorok Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko ***Bertsotan*** liburuan argitaratu zituzten arte. Sail horiek izan dira artikulu honen iturri eta gehiago nahi duenak bertara jo dezake.



Ereñotzuko Txabolategi baserri zaharra. Hemen jaio zen bertsolaria.

Aipatu bezala, Txabolategi baserrian jaio zen bertsolaria eta beste hiru senide ere bazituen: Maria Esteban 1763ko abuztuaren 3an jaioa, Juan Bautista 1765eko uztailaren 7an jaioa eta Migel Jose 1771eko uztailaren 18an jaioa. Gurasoak berriz Frantzisko Erroizenea eta Sebastiana Intxauspe. Datu hauek Antonio Zabalak egindako lanari zor dizkiogu, antzinako bertsolari honen arrastoak ezkutatu samarturik baitaude dagoeneko.

Denborak ehundutako oihal trinkoa saretze aldera, liburuetan begiratu eta galdezka aritu gara Txabolategi baserrian gaur egun bizi den Telesforo Oiarbideri, gaur egun Elkano kalean bizi den Alkatxuingo Fernando Erroizeneari eta Bortuluene-Bordan bizi den Jose Maria Pagolari. Zenbait argibide lortu ditugu: Txabolategi ezkondu eta Oindi azpira joan zen, Osiñagako Bortuluene Bordara. Ondorenean ere familiako jendea bizitu izan zen Txabolategin, harik eta Ramon Izagirre Erroizenea eta Maria Oiarbide Zuaznabar senar emazteak eta Martina eta Mariano seme–alabak Ubarrotora bizitzera joan ziren arte. 1914an erosi zuten ordurako hutsik zegoen Txabolategi baserria sei mila pezetan, Larre Gaingo Antonio Oiarbide eta Etxola Berriko Maria Zabaleta senar emazteek; 5 senide bertan jaio ziren, tartean gaur egun bertan bizi den Telesforo Oiarbide bera. Orain lau urte Txabolategi berria egin zuten aldamenean eta zaharra bota.



Telesforo Oiarbide Ereñotzuko Txabolategi zaharreko pareta zen tokian, Txabolategi berria atzean duela.



Osiñagako Txabolategi baserria, bertsolariaren bizileku izandakoa.

Jose Joakin Erroizenea ezkondu zenean Oindi azpiko Bortuluene–Bordara joan ziren bizitzera, Osiñaga bailarara, eta hargatik deitzen zaio gaur egun Txabolategi baserri horri ere, bertsolariak eramandako izena hartu baitzuen. Gaur egun bertan bizi dira Jose Maria Pagola Alberdi Erroizenea eta Mirari Pagola aita-alabak, Txabolategi bertsolariaren ondorengoak. Jose Mariak zenbait azalpen eman dizkigu, besteak beste Bortuluene-Borda izena kanpoan idatzia izan duela baserriak, baina izen horrekin inork ezagutzen ez, eta Txabolategi letreroa dauka jarria gaur egun fatxadan. Jose Maria Pagolak gogoan du nola burdinazko ohe bat bazen baserrian gurpil eta guztikoa, eta aitak nola esaten zion: *"hau bertsolariarena huan"*. Etxean, arbaso bertsolariaren kontuak askotan entzun izan dituzte, baina gutxi dira gaur egunera iritsi direnak. Hori bai, azken hatsetan Txabolategik botatako bertsoa ederki kantatzen du Jose Maria Pagolak, soka erabat eten ez denaren seinale.

Jaiotetxea Txabolategi bada ere, garai hartako zenbait idatzitan Txabalategi izenarekin azaltzen da bertsolari handia, izenak izan lezakeen bilakaeraren lekuko.

Desafioa, lau mila lagunen aurrean.

Txabolategik eta Amezketako Zabalak badute bertso desafio famatu bat, 1801ean Billabonako plazan jokatua. Ikusmin izugarria sortu zuen desafio honek, txapelketa guztien sorburu izan litekeenak, eta Billabonako plazan lau mila lagunetik gora elkartu ziren. Epaile lanetan ere izen handiko adituak zituzten: Fernando Amezketarra, Zabala bertsolariak eramana; Aizarnazabalgo sakristaua, Txabolategik eramana; eta D. Jose Mendizabal Tolosako apaiza, Billabonako alkateak aukeratua. Bertso desafio honek gaur egungo herri kirol apustu kutsua zuen, bi lagun elkarren kontra eta bosna ontza urre botata jokatu baitzen. 1824an Iztuetak honela idazten du *Gipuzkoa'ko dantza gogoangarriak* liburuan:

"Datorren otsailean izango dira 22 urte, Billabonako plazan jokatu zutela bertso-



Jose Maria Pagola Alberdi Erroizenea eta Mirari Pagola aita-alabak.

tan bosna ontza urre, lehendanaz apustu eginik, Zabala amezketarrak eta Txabalategi Hernanikoak; zeinean izandu nintzen juezetarako Zabalak bilatua: baina egun batzuek aurretik eritasun txiki batek hartu ninduelako, ez nuen zerbitu, eta nere ordez, bere herritar Fernando eraman zuen. Baita Txabalategik ere Aizarnazabalgo elizaina. Eta Billabonako alkate jaunak erabakitzaile D. Jose Mendizabal apez sonatu hura ipinirik, lau mila eta gehiago pertsonaren aurrean kantatu zuten bi orduz jokalariek, apostua egin zuten bezala; batak besteari asmatu ahal zitzakeen hitz–gairik nekezenak irikiaz, nondik eta nola nahaspilatuko zuten ahaleginik haundiena egiten zituztela.

Guztiaz ere, hain zuzen eta egoki eman omen zituen nork bere hitz–neurtuak, non apustuko bi orduak betetzean, juezak elkarrengana batu baino lehenago altxatu omen zen plazako jende guztia, deiadarrez esaten zutela, jokalari biek kantatu zutela guztiz ongi eta hutsaldirik gabe... orduan irten omen ziren juezak plazaren erdira eta bertso hauek kantatu omen zituzten..."

Aizarnazabalgo sakristauak:
Txabalategi eta
Zabala gaztia,
askok desio zuten
kantuz ikustia.
Atsegin haundietan
geldi da jendia;
bata adinbat egin
behar degu bestia

Fernandok:
Ezin gentzake bada
beste gauzik egin;
nik gogoan neukana
zuk dezu hitzegin.
Utzi behar ditugu
biak berdin berdin,
Gipuzkoa guztiak
har dezan atsegin.

D. Jose Mendizabalek:
Jaunak, mintzo zerate
grina txarrik gabe,
pozkidatu nauzute
txit asko, halere:
egia esateko
ipiniak gaude
Bata bezain bestea
Kantari onak daude.

Galtzailerik gabeko desafioa izan zen beraz Billabonakoa, edo bi irabazlekoa, denboraren joanak erakutsi duenez.

Baina, aurrerago beste desafio bat ere jokatu zuten Tolosan, Inauterietako azken arratsaldean, orduan bi bitara: Txabolategi eta Tolosako Altamira batetik, eta Fernando Amezketarra eta Zabala bestetik. Plaza zaharreko baranda banatara igota kantatu omen zuten arratsalde osoan, ilundu artean. Badirudi orduko hartan ere berdinean bukatu eta jendea txoratzen utzi zutela. Horiek dira gaur arte iritsi diren Txabolategiren desafioak, baina gehiago ere izango ziren seguruenera.

Otso ehiztariei kantatuak.

Antonio Zabalak idatziriko liburuak biltzen ditu Ereñotzuko Jose Oiarbide zenaren ahotik jasotako Txabolategiren bertsoak. Dirudienez, Aranoko mendietan otsoren batek ardiak hiltzen zituen, eta ehiztari mordo bat bildu eta otso ehizara irten zuten mendira. Tartean bi apaiz ere ba omen ziren, besteek baino eskopeta dotoreagoekin. Bidean Txabolategirekin topo egin zuten nonbait eta bi bertso dotore hauek bota omen zizkien:

(1)
Aranoko ehiztariak
urumiatarrak,
kolore biñakuak
zenituzten armak:
zarrallak beltxak eta
kañoiak nabarrak
ederragua zeukak
Belaundia jaunak
dezente egon bihar dik
hola joango danak.

(2)
Miel Domingo jauna
Don Bitor apaiza,
otsua harrapatzen
duda gabe gaitz-ta;
artzai hoiengandikan
Errenkura maiz-ta:
ardia edo bildotsa
Jan diela aixa;
dituenari beti
galdu biha zaizka.

Pastor Izuelari zirika.

Agustin Arruti Larragoien Pastor *Izuela* garai hartako beste bertsolari handietako bat zen, Aiarra. Behin Hernanira etorrita bertso hauek kantatu omen zizkioten elkarri Txabolategik eta biak, beste askoren artean seguru asko. Zenbait kontakizunek diote, Hernaniko aberats batek prestatu zuela bi bertsolarien arteko desafioa, Txabolategi Izuela baino hobea zela iritzita. Baina aldi honetan ere onena zein zen erabaki ezinda geratu omen ziren. Berez gaur arte iritsi diren bertsoetan izenak aldatuta agertzen dira, baina hemen zuzenduta daude, lanak errazte aldera. Hauek dira gorderik dauden bertsoetatik bost (guztiak ez dira elkarren segidakoak), hiru puntuko handian:



Felipe Erroizenea eta Pakita Miranda senar-emazteak, Pello Erroizenea ilobarekin.

(1)
Txabolategik:
Aizu Agustin Izuelako
ahuspez lurrean jarririk,
bizkarra ere makurtu zazu
bakartasunez beterik,
admiraturik aurkitutzen naiz
ez dezulako andrerik.

(2)
Izuelak:
Jose Joakin, zer egingo det
baldin modurik ez bada?
Lan horregatik korritu ditut
Bizkaia eta Araba,
zure esperantzan egongo naiz ta
hazi zaidazu alaba.

(3)
Txabolategik:
Nere alabai suerte onen bat
Ein al baneza munduan,
Egingo diyot enkargu hori
Etxera nuan orduan:
Ia ezkontzeko pentsamendurik
Ote dadukan buruan.

(4)
Izuelarena:
Hiru osaba Parisen dauzkat
Bonaparteri serbitzen,
haien umiak, zazpi lehengusu,
gobernadore Cadizen,
donzellatasun hau zertaño dan
nik ez diyot entenditzen.

(5)
Txabolategik:
Gure etxian lau ollo dira,
hiruk daukate kiyua,
oilarra berriz haien ondoren
tantaian gora iyua,
adios jaunak beste bat arte
pasa da dibersiyua.


Heriotza.

Bertsotan bizi eta bertsotan hil, halaxe egin zuen Txabolategi handiak. Harrobian lan egiten omen zuen, baina ez zen etxetik oso aparte ariko, bazkaria alabak eramaten baitzion otarrean. Otarrean botila esne omen zeramakien alabak gainerako jakien artean eta erori eta muturretik hautsi omen zitzaion. Aitak botila hartatik esnea edandakoan kristal izpiren bat ere tragatu egin zuen, nonbait, eta horretatik hil zen. Hil aurrean bertso famatu hau kantatu zuen:

(1)
Espezia txarren bat
sartu zait barrenen,
bildur naiz nere bila
etorri ote den;
San Pedrok sar nazala
portalian arren.
Hala izan dadila,
biba Jesus amen.

HERNANIKO PRINTZAK

HERNANIKO IKUSPEGI ARTISTIKOA. ESKULTURAK: *GIZONA*




Etorkinen omenez **Gizona** *eskultura (Miguel Ángel Oribe) Urbieta kalean.*

IÑAKI BAKEDANO, HERNANIAR BAT NEW YORKEN

Amaia Iraola – Mikel Zugasti

Iñaki Bakedano 42 urteko hernaniarra dugu. Estatu Batuetara bizitzera joateko aukera sortu zitzaion orain dela 16 urte, New Yorkera. Hernani ez du ahaztu eta ahal duenean hurbiltzen da herrira. Horietako batean topatu eta elkarrizketa hau egiteko aukera izan dugu. Hemen azalduko dizkigu hango bizimodua, hiri erraldoiari buruzko zenbait kontu eta han nola moldatzen den.



Iñaki Bakedano.

Iñaki, noiz joan zinen New Yorkera? Zerk bultzatu zintuen hara joatera?

Orain dela 16 urte joan nintzen. Beste gauzen artean, gaztea nintzelako, eta aldatzeko aukera ona suertatu zitzaidalako. Gainera, neska laguna amerikarra da eta... nahiko babestuta joan nintzen. Ordura arte inoiz ere ez nuen pentsatu hemendik ateratzea. Baina gauzak aldatu egiten dira eta…

Ezagutzen al zenuen hiria joan baino lehen?

Aurretik ez nuen hiria ezagutzen; topikoetatik, pelikuletan ikusitakoa.

Ingelesez hitz egiten al zenuen? Beharrezkoa da jakitea?

Ingelesik batere ez nekien. Beharbada lana egiteko ez da beharrezkoa baina jendearekin eta hiriarekin harremanak izateko bai. Mundu guztiko jendea bizi da: afrikarrak, kanadarrak, frantsesak, e.a. eta beraiekin harremanak izateko beharrezkoa da, ez bakarrik amerikarrekin hitz egiteko.

Non edo zertan egiten zenuen lan?

Lehenbiziko lana mezulari moduan egin nuen bizikletan *"bike messenger"*. Oso gustura, baina arriskutsua; gaztea izanik arrisku horietaz ez nintzen batere jabetzen. Izan nituen istripu batzuk baina, esan bezala, gaztea zarenean... *altxa eta segi*!

Sukaldaritza munduan lan egin zenuen. Pentsatu al zenuen euskal jatetxeren bat irekitzea?

Edozein tokiko jatetxeak daude, janari ona prestatzen dutenak, eta euskalduna bakarra euskal janaria ez ezik jendea paella eta horrelako gauzak jatera ere joaten dena. Garai batean begiratzen egon nintzen baina, oso garestia... diru asko behar zen horretarako. New Yorken diru asko behar duzu horrelako negozio bat jartzeko.

Euskal Etxea badago, maiz joaten zara? Zer egiten duzue han?

Bai, eta joaten naiz. Hala ere, egungo Euskal Etxea aldatu egin da. Lehen etorkinak biltzeko toki bat zen; gaur Euskal Kultur etxe bat nahi dugu ireki. Lokala oso ona dugu eta hemendik, Euskal Herritik, badoa jendea zerbait egiteko gogoarekin, kafe antzoki baten modura edo, hitzaldiak, kontzertuak... antolatzeko ideiarekin. Kepa Junkera etorri da, eta albokari, txistulari eta gitarra jole talde bat,... azken hauei nik prestatu nien afaria eta bertan aritu ginen abesten eta parrandan. Gainera, Gernikaren bonbardaketaren urteurrena gogoratzeko ekitaldi bat antolatu genuen, babarrun janak ere antolatzen ditugu, mus txapelketak... Gauzak antolatzen ditugu eta ideiak badaude ildo horretan jarraitzeko baina lana egiteko jende gutxi. Gaur egun joaten diren euskaldunak ez dira gehiegi inplikatzen proiektuan; nire ustez euskalduna bazara Euskal Etxea aurrera eramaten lagundu beharko zenukeen baina...

Nongoa da Euskal Etxera joaten den jendea?

Hernanikoa ni bakarra naiz baina noizbait herriko batzuk azaldu dira, ezagutzen ez nituenak. Bat Washintongen zegoen neska lagunarekin bizitzen baina, nire kasu antzekoan zeuden. Nire emaztea minessotarra da eta niri hiri hark ez ninduen batere erakartzen. Bagenekien New Yorken beste bizimodu eta aukerak izango genituela. Horiek ere nahiago zuten New York antzeko hiri batean bizi, errazago egingo zitzaielakoan.

Festak (San Joanak, San Sebastian eguna...) ospatzen al dituzu han zaudenean?

Beno, ni azken urte hauetan Sanjoanetan Hernanira etortzen saiatu naiz, udan Euskal Etxea itxi egiten dugula aprobetxatuz.

Joan zinenez geroztik saiatu zara Hernanira Sanjoanetan etortzen. Faltan botatzen al duzu herria?

Hainbestetan ez naiz etorri, baina saiatzen naiz. Bai faltan botatzen dut herria, familia, giroa, jendearekiko harremanak... Horregatik etortzen naiz ahal dudanean.

Sagardotegiei buruz saiatu al zara inoiz hango lagunei nolakoak diren azaltzen?

Bai, saiatu bai, baina oso zaila da, ikusi gabe, sagardotegi bat zer den ulertzea. Hala ere, sagardoa hara eramateko gogoa badugu, ea modu bat egiteko lortzen dugun! Bestalde, etortzen naizenean, nik beti eramaten dut.


Nolakoak dira amerikarrak harreman aldetik? Zer nolako harremana daukazu hango jendearekin?

Desberdindu egiten dut New York eta Estatu Batuak. Mundu osoko jendea dago: kolore, ohitura... desberdinetakoak. New Yorkek ez dauka zerikusirik beste estatuekin eta hiriekin. Amerikarrak beraiek ere horretaz konturatzen dira. Adibidez ibaia pasa eta New Jerseyra joaten bazara beste mundu desberdina dela ikusten duzu. New York oso hiri liberala da. Ni handik ateratzen naizen bakoitzean harritu egiten naiz, *oh my god*!

Harremanak bai, baina ez dute gu bezalako ohiturarik: kalean geratu, zerbait edan... hau da, lana egin eta etxera.

Ez, ez dituzte ohitura berdinak. Gehienetan etxera joaten dira. Toki batzuetan gureak bezalako etxe arruntak daude baina gehienak etxe handiak dira, eta han, etxean, elkartzen dira. Desberdinak dira baina denetatik dago, ezin da orokortu.





Astean zehar nolakoa da zure bizimodua? Eta aste bukaeratan?

Gaur egun astean zehar etxeko gauzak egin ondoren estudiora joaten naiz 6–8 ordu. Argazkigintza munduan mugitzen naiz, lan egiten dut, eta... gustatuko litzaidake nire lanaren erakusketa bat egitea eta horretan ari naiz lanean.

Noizean behin kanpora irteten naiz argazkiak ateratzera. Jendearekin ere geratzen naiz. Aste bukaeran Euskal Etxera joaten naiz zerbait antolatuta badago. Hala ere hango kirol nagusia "*shopping*" egitea da. Hemen tragotxo bat hartzera geratzen zaren bezala han "*let's go shopping*" esan eta erosketak egitera joaten zara. Eguraldiaren arabera ere batzuetan mendira joaten naiz, Harriman deritzon eta izugarrizko basoa duen leku menditsu batera; etxetik gertu dago, kotxez ordu batean han zaude.

Irailaren 11ko atentatuak gertatu zirenean, New Yorken bertan zinen, nola bizitu zenuen egun hura eta ondorengoak?

Beno, gaizki. Bizi ginen inguruko kaleak aste osoa itxi egin zituzten, bakarrik bertan bizi ginenok sartzen ginen, besterik ez zegoen. Jendeak desagertutako argazkiarekin kartelak jartzen zituen kalean, bertan bizi eta desagertu zen jendearenak... Gogorra izan zen, kalera atera egoera eta giroa nola zegoen ikustea oso gogorra zen.

Nola ikusi zenuen zuk eta nola beraiek Madrilen martxoaren 11n gertaturiko atentatuak?

Alde batetik oso gaizki. Hasieran guztia publizitatea zen: euskaldunak izan dira, zuek izan zarete. Topo egin nuen hango bulego batean lana egiten zuen espainiar batekin eta berak zioen oso egun kaskarrak pasa zituela jendeak berarekiko zuen jarrerarengatik. Zein izan zen atentatuen egilea hara iristea kosta egin zen. Badakit epaiketa egin dela, baina hori ez da behar zuen moduan hara iritsi.

Ba al dute Estatu Batuarrek Euskal Herriaren berririk? Hemengo zerbait ezagutzen al dute San Ferminetako entzierroaz aparte?

Amerikarrek, uste dut, jakintsuak direla. Nongoa naizen esatean ezaguna egiten zaie baina kontuan izan behar dugu gu oso herri txikia garela. Gauza bera gertatuko zaizu hemengo norbaiti galdetzen badiozu ea non dagoen Montana, jendeak ez du jakingo.

Biolentziari buruz iristen zaizkigun berriak, kaleetan, eskoletan edo unibertsitatetan gertatutakoak adibidez, oso alarmagarriak direnak. Nola bizitzen dute armak hain errez lortzea?

Kalean badaude betidanik eztabaida batzuk: abortua, armak... baina ez dute ezer egiten. New Yorken adibidez oso-oso zaila da legalki arma baten jabe izatea, zuk han legalki ezin duzu pistola bat eduki. Baina, joaten zara ondoko estatu batera eta oso erraz erosi dezakezu. Azkenean arma horiek merkatu beltzaren bidez New Yorken bukatzen dute. Oso zaila da hori moztea. Beharbada konpondu daiteke, baina dirua eta boto asko mugitzen da horren inguruan.

Pentsatu al duzu inoiz Hernanira bueltatzea? Ez zaizu lasaiegia irudituko?

Bai, hemen nago ez?

Bai, baina bizitzera?

Pentsatu? Oraingoz ez dut ezer pentsatu, agian aurrerago bai. Pisu bat erostea gustukoa izango nuke baina oso garestiak omen dira, ezta?


Ez al zaizu hau lasaiegia irudituko?

Ez dut uste. Azkenean New York "herritxo" desberdin bat da. Uste dut baietz, etorriko naizela.

Joan zinenetik orain arte aldaketa asko ikusi al dituzu Hernanin?

Bai, autobia, errepideak, toki guztietan daude. Auzoak ere aldatu dira,





lehen Karrero aldera joatea urrutira joatea zen. Gainera nik ez dut denbora luze bat pasa etorri gabe eta aldaketa guztiak pixkanaka ikusi ahal izan ditut. Ikusten ditudan aldaketak desberdinak dira, adibidez janarietan. Badira produktu asko Ameriketan ezagutu ondoren orain hemen ikusten ditudanak. Jendeak orain hemen badaki zer den kebah bat, freeky, loft... gauza hauetan nabaritu dut aldaketa gehien.

Azkenean hona bizitzera etortzen bazara, zer botako duzu faltan?

Ez dakit, beharbada han dauden aukerak. Adibidez, oso gustukoak ditut teknologia berrietako produktuak. Orain hemen hasi dira denda espezializatuak baina, gaur egun internetekin aukera handia izan arren, han aukera askoz handiagoa duzu. Hala ere, gaur Urbil, Garbera eta horrelako tokitara joaten bazara, jende asko dabilela ikusten duzu. Non sartzen zen lehen jende hori guztia?

Mila esker eta ea Hernanin zure lana ikusteko aukera dugun.

Ziur laster ere berriro egingo dugula topo Iñakirekin Hernaniko kaleetan.

TURISMOA HERNANIN? ZERGATIK EZ?

Gurutze Amigorena (Udal Turismo teknikaria)



Egungo egoeran, krisi ekonomikoa gora krisi ekonomikoa behera gabiltzan honetan, turismoaz gogoeta egiteko une egokia ote den pentsatuko du hainbatek. Batez ere, Hernanik, historian zehar Gipuzkoa osoa lurralde industriala izanik herri askoren antzera, turismo jarduera garatu ez duenean.

Dena dela, kontuan izanik azken urte hauetan antzematen ari dela turismo sektorearen garrantzia Euskal Herriko ekonomia alorrean; eta gainera, ehun urte dirauen gaitzik ez dagoenez; udalerriaren garapena eta bertako biztanleriaren ongizatea helburu nagusitzat hartuta, Hernaniko Udalak turismoaren aldeko apustu sendoa egitea erabaki du.

Erabakia hartu aurretik ordea, arlo berri honen bideragarritasuna neurtzeko asmoz, urrats batzuk eman ziren 2003 eta 2004 urteetan. Horretarako, udalerriaren ahalmen turistikoaren analisi sakona egin zen, eta ikerketa horren ondorioetako bat Hernanik garrantzi ezberdineko baliabide turistiko anitz dituela baieztatzea izan zen: sagardotegiak, Urumea ibaiaren ertza, Santa Barbara, Chillida-Leku, Aiako Harria, multzo megalitikoak, San Agustin komentua...

Aurten, Udalak kapitulu berri bati ekin dio turismoaren alorrean. Batetik, turismoa suspertzeko, bestetik

merkaturatzen hasteko, zenbait egitasmo gauzatzen hasi da.


Horietako bat "Ongi etorri" panelak dira. Udalak bost sarrera natural izan arren, aurten, Errekaldetik Hernanirantz datorren errepidean eta Astigarragatik Hernanirantz datorrenean kokatu dira. Panel hauek udalerrira sartzen diren guztiei ongi etorria emateaz gain, Hernaniren aurkezpen txiki bat egiten die, herriaren adierazgarri diren argazkiekin apainduta baitaude.

Era berean, interes anitz sortu duten hiru diptiko argitaratu ditu Udal Turismo Arloak:

- Hernaniko plano turistikoa
- Nere Borda Parke Botanikoa.
- Hernani hirigune historikoa eta Monumentuak.

Ezin ahaztu ordea, sagardotegiak gure herriaren kanpo proiekziorik handienetakoa duten elementuak direla. Hori dela medio, "*Sagardoa Hernanin*" izeneko liburuxka plazaratu da. Bertan, Hernanik antzinatik sagardoarekin duen lotura azpimarratzeaz gain, edari identifikagarri honen inguruko zenbait bitxikeria irakur daitezke. Baina liburuxkaren helburu nagusia irakurleengan jakinguraren arra piztea da.






HERNANI

HIRIGUNE HISTORIKOA, MONUMENTUAK

EUSKADI atsegin handiz con mucho gusto

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Hernaniko Udala





Argitalpen hauen ildotik, "udako proiektu" baten lekuko izan gara herritar guztiok: Urbieta kalean informazio turistikorako jarritako etxola. Batik bat bisitariei zuzendutako proiektua izan arren, biztanleriak bere udalerria ikuspuntu turistikotik begiratzen hasteko bideetako bat izan daiteke. Gainera, bisitariei ez ezik herriko jendeari ere gune horretan eskainitako zenbait informazio ezezagun gerta dakioke eta, era berean, interesgarri.

Taulan islatzen ez diren bi datu:

•Donejakue Bideko erromes talde batek abuztuko gau bat igaro zuengureherrian.
•Jatorri euskalduneko argentinar batek Hernaniko txokoen argazki ugari, eta udalerriaren oihalezko bandera eraman zituen bere anaiak Argentinan duen jatetxea apaintzeko.

Datorren urteari begira, Udalak, homologazioa lortzen duten ibilbideekin egingo duen argitalpena. Oraingoz, Hernaniko Ibilbide sarearen diseinua prestaketa prozesuan dago, baina bost bat homologatuko dira ziurrenez. Erakargarria benetan hernaniar askorentzat!

Turismo informazio guneko erabiltzaileen datuak.

Jatorria	Uztailean	Abuztuan	Bi hilabeteetan
Hernani	177	49	226
Gipuzkoa	4	33	37
Bizkaia	2	6	8
Araba	0	5	5
Nafarroa	5	3	8
Galizia	0	2	2
Madril	15	7	22
Katalunia	18	92	110
Murtzia	0	2	2
Extremadura	1	0	1
Andaluzia	0	1	1
Aragoi	4	0	4
Valentziako Erk.	2	9	11
Kanariak	2	0	2
Ingalaterra	7	0	7
Italia	1	3	4
Txekia	0	5	5
Frantzia	0	4	4
Argentina	3	0	3
Kuba	0	2	2
Peru	0	1	1
Sahara	0	5	5
GUZTIRA	**241**	**229**	**470**

Orduan? Turismoa Hernanin? Zergatik ez?

URTEURRENAK 2008
25 AÑOS DE LAS INUNDACIONES DE 1983


La mayor catástrofe del siglo pasado ocurrió en 1983. Las sucesivas trombas de agua registradas sobre todo los días 26 y 27 de agosto originaron las más graves inundaciones que se recuerdan en Euskal Herria...

...El Urumea se desbordó a su paso por Hernani provocando... Ereñotzu quedó aislado y en los barrios del Puerto y Karabel el agua generó situaciones de temor e incertidumbre entre los vecinos. En Karabel algunos vecinos temieron el derrumbe de sus pisos...

En el Puerto, los vecinos, muy acostumbrados a situaciones similares, se afanaron en tareas de achique y limpieza. Los polígonos industriales también se vieron afectados...[1].







[1] MARTINEZ MATA, José Mari. *Hernani convive con las inundaciones* en Hernani 2003 Urtekaria; pag. 102-109.

50 AÑOS DEL TORNEO "ATSEGINDEGI"

Ex-organizadores del Torneo "Atsegindegi" (José Mª Aldasoro)



Miembros de la Juventud parroquial de "Luises" que organizaron el primer torneo de Atsegindegi.

Aunque en terrenos del desaparecido Parador San Antonio, dos años antes ya venían celebrándose torneos informales, es en el año 1958 cuando se celebra el I Torneo "Atsegindegi" de Fútbol Infantil.

Fue la Juventud Parroquial de "Luises" la que organizó aquel primer torneo. Hemos de recordar al sacerdote D. Juan José Arregui, y a Eduardo Loyarte, Antxon Garín, Juan Miguel Polo, José Mari Brel, Norberto Uranga... y a los árbitros Luis Fernández *Perrete* y Luís Salillas.

Antes de que el balón comenzara a rodar hubo que localizar (y habilitar) un terreno de juego ya que el del Parador, utilizado inicialmente de forma provisional, iba a ser destinado a otros proyectos. Finalmente, se decidió que la zona de "Atsegindegi" era la más apropiada. Era un terreno de huerta y escombrera, y hubo que realizar algunos rellenos para acondicionarlo. Para ello se contó con la ayuda (la mano de obra) de alumnos de la EPO (Escuela Profesional Obrera), a los que se les obsequiaba con bocadillos de anchoas y sardinas. La herramienta se obtuvo del Merendero "Buxkando".

El primer vestuario fue un local de las Escuelas Viteri, siendo la ducha, un bidón de agua fría. Con el tiempo, poco a poco, se fue acondicionando.

El fin último de la organización no era sino que la juventud hernaniarra practicara deporte, y a pesar de ello hemos de recordar que en estos primeros momentos no se contaba con colaboración oficial alguna.

Internamente se elaboró un reglamento, y se "estableció" con el C.D. Hernani una especie de "preacuerdo" por el que aquellos jugadores que llegaran a la edad de 16 años (el torneo se organizaba para equipos de chavales de entre 13 y 16 años) pasaran al Club. Aún así, siempre los había que tenían otras aspiraciones y "ofertas", y "fichaban" por otros equipos de mayor categoría; aquel "preacuerdo" no era más que un acto de buena voluntad de la organización y entrenadores para con el CD Hernani, no existía nada oficial que obligara a "pasar" a los equipos juveniles del Club.

En la primera edición participaron seis equipos: Viteri, Batxiller, Txinparta, La Salle, EPO-A y EPO-B. El primer campeón de Liga y Copa fue el "Viteri"; el subcampeón de Liga el "Txinparta", y el de Copa el "Batxiller".



Viteri 58/59, campeón de liga y copa.



Tximparta 58/59, subcampeón de liga.



Batxiller 58/59, subcampeón de copa.

En 1966 el Ayuntamiento decide construir una pista de balonmano en el mismo campo de fútbol, en el centro del campo de fútbol (el terreno era municipal). La celebración del torneo quedo en suspenso durante algún tiempo, y muchos chavales comenzaron a jugar en el Torneo "playero" de la Concha de San Sebastián.

En la temporada 1967/68, con la pista de balonmano en el centro del campo, se pone de nuevo en marcha el torneo, pero en adelante habría que coordinarse con el balonmano, que tenía prioridad, a la hora de celebrar los partidos. Los partidos del torneo de fútbol se celebrarían a partir de entonces, los sábados a la tarde.

En 1969 cambió la directiva de la Juventud de "Luises", del "Arriburni", y consecuentemente, después de 11 años de trabajo, cambió la organización del torneo. Con esta nueva "junta directiva" se produjeron una serie de cambios en la organización del torneo, desde estos momentos aquellos miembros que asumieron la organización del mismo, también desempeñarían las labores de árbitro. Así, hasta el año 1982.

Otro de los cambios que introdujo esta nueva organización fue federar y asegurar a todos los jugadores, decisión tomada, sin duda, tras la lesión sufrida por un jugador la anterior temporada y de la que nadie se responsabilizó ya que no existía seguro alguno. Con esta nueva reglamentación vía "Federación", además, se tuvo que modificar la edad de los chavales que tomaban parte en el torneo: en adelante debían de contra entre 12 y 15 años.

En cuanto al número de participantes se refiere, el torneo de Hernani, de "Atsegindegi", era el más importante de Gipuzkoa, tras los torneos infantiles de la Concha y Zarautz. Además, el campeón de Atsegindegi participaba en el campeonato provincial.

El año 1979 dos jóvenes comenzaron a organizar un torneo alevín, sin federar, en el patio de las Escuelas Viteri. En 1982 la organización de este pasó a manos del C.D Hernani. Con esta nueva estructuración y esta asunción del torneo alevín por parte de C.D. Hernani estos jugadores también son federados y pasan a jugar, también, a Atsegindegi. Los alevines jugaban los sábados a la mañana y los infantiles a la tarde.

En este momento, la organización, el C.D Hernani, cuenta con la colaboración de los "arbitros" que ya llevaban 12 años en esa labor, y con la ayuda de otros nuevos.

En 1988 el Torneo de Atsegindegi, pasa a Karabel, a un campo de dimensiones más reducidas, y en el que no se contaba con vestuarios. Por ello, hasta 1991, año en que se inauguraron las instalaciones de Zubipe, se han de utilizar los del polideportivo.

Hacia 1994, la Diputación Foral de Gipuzkoa comienza a intervenir en materia deportiva, reglamentando el deporte escolar. Desaparecen los equipos de barrio como eran el Elizatxo, C.A.D. Puerto, San Juan Txiki, Florida Berriak, Buenos Aires, Lizeaga, etc. y los de las sociedades (Xalaparta, Gure Txoko...), y también los de los pueblos cercanos: de Tolosa, Villabona, Urnieta Astigarraga, Ergobia, Andoain, Martutene, y por supuesto, el Danena (de Zizurkil) que tantos jugadores dio al C.D. Hernani. Otros equipos que habían participado durante muchos años eran los de las Escuelas Viteri, Ikastolas Uru-





Dos de los equipos de tomaron parte en la temporada 67/68.

mea, Elizatxo y Langile, y los del Colegio La Inmaculada.

Hoy, persiste un "torneo" de fútbol, siguiendo las directrices de Diputación, bajo la reglamentación de deporte escolar, que desde hace unos años además, es mixto. Pero... ya no es el Torneo de Atsegindegi.

Destacar, para finalizar, sin intención de olvidarnos de nadie, de jugadores que tras dar sus primeras patadas en el Torneo de Atsegindegi, llegaron a jugar en 1ª División. Como porteros: Juan Luis Irazusta, José Manuel Otxotorena, Pedro Mª Quemada Ochotorena. Jugadores de campo: Iturritxa, Arrieta, Corcuera, Oyarzabal, Arano, Luis Pérez, Zabala...



Partido, celebrado en 1984, conmemorativo de los 25 años del torneo entre los equipos Txinparta y Xalaparta.

Algunas fotografías de los equipos de la década de1970.



CAD Puerto, temporada 72/73.



Buenos Aires, temporada 74/75.



Hernani - Orbegozo, temporada 74/75.



Elizatxo, temporada 74/75.



Florida Berriak, temporada 77/78.



Santa Barbara, temporada 77/78.

ESKOPETEROAK SANTA BARBARAN, 1964

Eulali Aramburu Urkizu

Hernaniarrok ongi dakigu Santa Barbarako ermitan uztailaren 31n San Inazio egunez festa ospatzen dela.

1964ko uztailaren 31n Txantxangorri Ehiza, Arrantza eta Tiro Elkarteak ekintza berexi bat egokitu zuen, Sandalio Landaribar eta José Sagarna bazkideen ardurapean.

Festa ekintzen barne Meza Nagusia izaten zen (izaten da) "eskopeteroak" apain–apain jantzita, eskopetak eskuetan zituztela, ermitaren ezkereskuinean jartzen ziren. Meza erdian, Kontsagrazioaren momentua iristen zenean, denak batera, bi tiro airean boteaz agurtzen zuten Jauna.

Ensaio handirik behar ez duen ekintza zenez gutxitan bildu omen ziren. Gertakizun hau urte batean edo... bi urtez bakarrik... izan ote zen... diote.

Argazki honek agertzen digun ekintza, asko izango dira jakingo ez dutenak ere holakorik izan zenik.



Hara hemen argazkian daudenak. Zutik: Nemesio Esnal Ceberio, José Gabriel Elizondo Camio, José Ramón Huici Almandoz, Juan Luis Zabaleta Elosegi, Andres Erice Agirresarobe, Jesús Mª Casado Laburu, Miguel Angel Larretxea Goñi, Jesús Mª Martínez Polo eta Julen Eguren Goia. Eserita: José Javier Zabaleta Elosegi, José Ignacio Zabala Luloaga, Enrike Lizasoain Lete, Luis Mª Gorrotxategi Cigaran, Juan Antonio Azpiazu Goñi eta José Mª Soto Tolosa.

PULTSUA: HERNANIKO KIROL ONDAREA

Jon Odriozola

Gerra eta gerraosteak ez dira batere samurrak. Gerra Zibilaren (1936-1939) ondorengo urteak, adibidez, latzak izan ziren hernaniarrentzat. *"Herria asko atsekabetu zen"*, zioen Imanol Larretxeak. Halere, pizgarri modua, hernaniarren artean, tarteka norgehiagokak antolatzen ziren. *"Adibidez, harri kozkorrak hartu eta ea nork urrunago bidali aritzen ginen"*. Zein baino zein apustu bitxiagoak.

"Esaterako, Santa Barbaratik korrika nor lehenago jaitsi... Harrobia txikia zen orduan, eta maldan behera nor arinago lasterkan heltzea izaten zen helburua. Baita pertika modukoekin ere", gogoratzen zuen Larretxeak. *"Makila luze samar bat hartu, lurrean sartu eta bere laguntzaz saltoak eginez aldapan behera jaisten ziren. Behin Adarra mendira nindoala, puntatik Fagollagaraino nor lehenago iritsi apustua ikusi nuen. Pertsona bat biren aurka lehiatu zen. Bikoteak irabazi zuten. Salto ikusgarriak eman zituzten"*.

Zentsura.

Lehiengandik oso urrun izaten ez diren apustuek, nahitaezko goibelaldia ezagutu zuten Primo de Riveraren diktaduraren garaian (1923-1930). Euskaraz hitz egiteagatik isunak jarri ziren bezala, aizkora apustuak ere galaraziak izan ziren. Hizkuntza, bandera eta armarrien 1926ko martxoaren 17ko Erregedekretuaren lehen artikuluaren arabera, *"aginduak betetzen ez dituztenei 25.000 pezetako* –150 euro inguru– *isuna jarri ahal izango diete gobernadore zibilek"* argitaratu zuen 1926an *La Voz de Guipuzcoa* egunkariak.

Garai hartan, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Enrique Chaconek, zirkular bat kaleratu zuen, *"aizkora saio gehiegizko eta kaltegarriak ugaritu ez zitezen"*. Ez zen batere kamuts aritu. Aizkora, sega eta pisu-jasotzaileen ikuskizunak bertan behera geratzeko agindua eman baitzuen. Arau-urratzaileei "neurri zorrotzak" ezarriko zitzaizkiela ohartarazi zien. *"Euskal Herrian oso aspaldikoa den aurrezte izaera eta herritar nekazarien laztasun eta lan ohiturak aldatu eta kalte larria eragiten dizkie"* adierazi zuen Chaconek herri-kiroletan egiten ziren apustuen harian.

Pultsulariak.

Hernanin gerra-aurretik, bati bat, kirol lehiaren batek oihartzunik izan bazuen, pultsua izan zen. Pultsua, egungo halterofiliaren moduko kiro-



la zen. Itxuraz oso berdintsua baina zamak altxatzeko orduan oso teknika berezia behar zuena. Egungo estiloarekin alderatuz, ezohikoa eta ezberdina.

"Zaletasun handia zegoen herrian pultsuan aritzeko", zioen Larretxeak. *"Hernanik oso pultsulari onak eman ditu gainera. Lehia bat jokatzen zen bakoitzean biltzen zen jendetza ere ikusgarria izaten zen. Eta noski, norgehiagoka bakoitzean apustuak izaten ziren"*.

Alberro sagardotegiaren hurrengo etxean bizi ziren *'Potrokillotarrak'* oso onak ziren. Baita Florida auzoko Zelaraindarrak ere. Herriko lau pultsulari onenak Joxe Zapiain *'Enporru'*, Argindegi baserriko Joxe Iradi, Carmelo Arbide *'Potrokillo'* eta Pedro Oruezabala *'Lejias'* izan ziren.

Habian.

Egun 91 urte dituen Antonio Goikoetxea, gaztetan pultsuan ibili zen bere baserriaren ingurumarian. *"Altzuetan bizi nintzela, gero Añarregi baserrian bizitzen jarri ziren Errazkindarrekin aritu nintzen pultsuan. Orduan, beste norbaitekin lehian aritzeko zaletasuna ohikoa zen. Nik 13 bat urte izango nituen pultsularitzari ekin nionean. Ez nintzen inoiz plazan aritu. Ezta Errazkindarrak ere, nahiz eta oso indartsuak eta iaioak izan. Gure baserri inguruan zegoen ukuilu zahar baten atzean aritzen ginen; lizar zuhaitz batzuen itzalean"*.

Herrian jokatu zen lehen apustua, Tilosetan, Pedro Oruezabalak *'Lejias'* eta Florida aldeko Beskisa baserriko Joxe Mari Zelarainek izan daitekeela uste du Goikoetxeak.

"Egungo halterofilia egiten dutenak golpe handi bat emanez bular aldera ematen dute pisua. Ondoren atseden pixka bat hartu eta azken kolpe batekin buru gainetik jasotzen dute. Pultsuak beste arau batzuk zituen. Adibidez, hasierako altxatzekolpea bularreraino ematen bazen ere, ezin zen bularra ukitu. Airean mantendu behar zen. Eta handik azken kolpe bat emanaz, gaur egun bezala buruz gain altxatzen zituzten pisu ezberdinak. Ondoren, laguntzaileekin batera lurreratzen zuten zama".

"Ardatza edo barraren ezker-eskuinean ipintzen ziren platera moduko plakak berunezko pisu ezberdinekoak izaten ziren. Nahiz eta ardatzak biribilak izan, heldu-lekuak karratuak izaten ziren" dio Goikoetxeak. *"Ardatz bat baino gehiago Portuko Txato errementariak egiten zituen"*.

"Enporru" garaile.

Lehiak arreta handiz prestatzen ziren. *"Pultsulari bakoitzak bere koadrila izaten zuen"*, gogoratzen du Goikoetxeak. *"Hau da, apustu bat antolatzeko zenbait pertsonak diru kopuru bat biltzeaz gain, pultsulariaren entrenamendu eta mantenuaz ere arduratzen ziren: prestaketan laguntzeko, jaten ematen..."*.



Tilosetan jokatutako apustu bat (1935).

Herrian jokatu zen apustu entzutetsu bat, Joxe Zapiain *'Enporruk'* eta Argindegiko Joxe Iradik, gerra aurretik jokatu zutena izan zen. *"Garai hartan, jendeak, 'Argindegik' 'Enporruk' baino gehiago jasotzen zuela esaten zuen, baina 'Argindegi' urduri jarri eta 'Enporruk' irabazi zion"* gogoratzen zuen Imanol Larretxeak.

Garaipenaren gakoa lehiaren prestakuntzan egon zela uste du Antonio Goikoetxeak. *"Primeran prestatu zen. Mediku batek gidatu zuen bere prestakuntza. Ondo elikatu zen 'Enporru'. Adibidez, barazkiak jaten aritu zen besteak beste. Gimnasia ere egin zuen. Hau da, mila atarramentu. 'Argindegik', ordea, kontrakoa egin zuen. Atseden hartu eta denetarik jan: txuletak... Azken batean, apustua, 'Argindegik' galdu zuen"*.

Giroa.

Pultsularien lehiak, batik bat, Tilosetan jokatzen ziren eta sasoi hartan jendeak diru askorik izango ez bazuen ere, apusturik ez zen falta izaten. *"Ziurrenik, asko jota zortzi eta hamar pezeta ingurukoak"*, aipatzen du Paco Iraolak. *"Dirua garai hartan ez baitzegoen batere soberan. 1934an nire aitak bizikleta bat erosi zidan Donostiako Askatasunaren hiribideko Comet etxean. Ez zen karreretakoa, apal-apal bat baizik. Sei pezeta ordaindu zituen. Beraz, hortik kontuak atera"*.

Norgehiagokak beroak izaten ziren. *"Gogoan dut behin Tilosetan ospatu zen lehia batean, pultsuan erabili beharreko berunezko pisuak baskularen gainean jartzen ari zirela 'Potrokillo' pisuarekin tranpa egiten ahalegindu zela. Amarrugile fama zuten 'Potrokillotarrak'. Jendea ohartu orduko builaka hasi zen. Hura iskanbila!"*.

"Isidro Ollokiegi 'Eltzekondo' herritar indartsua ere oso iaioa zen pultsuan" aipatzen zuen Imanol Larretxeak. *"Horretarako espresuki jaioa"*, eransten du Antonio Goikoetxeak. *"Behin* –zioen Larretxeak– *Hernanitik kanpo ehunetik gora kilo, antza, 106 eta 108 kilo artean, jaso zituen. Jendea indarerakustaldiarekin gozatzen ari zenez, 'jarraitu jasotzen' esaten hasi zitzaion. Eskarien aurrean bai erantzun zuen hernaniarrak baina jasotzen zuen arroa*



(11,5 kilo) bakoitzarengatik ontza bat urre ematen bazioten. 'Eltzekondo' ez zen batere tontoa. Bada ez bada ere inork ez zuen indartsuaren proposamena aintzat hartu".

Jaso eta jaso.

'Eltzekondok' 1901eko urtarrilaren 1ean Andoainen egin zuen lanak zeresan handia eman zuen. Garai hartako *La Unión Vascongada* egunkariak "erakustaldi harrigarria" bezala laburbildu zuen ikuskizuna. Goizeko hamaiketan jende askoren aurrean probaren baldintzak egiaztatu zituzten. "Plazaren erdi-erdian kokatu zen Eltzekondo. Alde batean, berriz, baskula bat. Bestean, arauak betez altxatzen ote zuen ikuskatzeko tokiko aginpideak aukeraturiko Andoaingo Evaristo Barriola eta Astigarragako Saturnino Arrieta lekukoak".

Forma zilindrikozko berunezko pisu batzuk ertzetan zituen burdinazko 1,60 metroko ardatzaren aurrean jarri eta lanari ekin zion hernaniarrak. "Lehen proban, ezker eskuarekin 100 kilo erraztasun handiz altxa zituen; bigarrenean, bi eskuekin, 116 kilo; hirugarrenean, 119; laugarrenean, 125; bosgarrenean, 129 eta seigarren eta azkenekoan, 132,050 kilo. Altxaldi guztiak garbitasun eta trebetasun handiz egin ditu eta eginahala bakoitzean ez du ezta minutu bat bera ere galdu. Ez hori bakarrik, ahalegindu izan balitz, arroba bat gehiago altxatzeko gai zela uste osoa zuen ikuslego guztiak" argitaratu zuen egunkariak.

Egungo halterofiliaren antza apur bat duen pisuak altxatzeko kirolak "Andartza" izena hartu zuen Gipuzkoan. 'Eltzekondok' pultsuan izan zituen arerioa gogorrenak, Asteasuko Antonio Ondartzakoa –*"oso indartsua zen"* gogoratzen du Antonio Goikoetxeak– eta Zubietako Andres Beloki izan ziren. Ramon Garate *"Urrestillako Bidezaina"* ere ez ei zen pultsulari batere makala.

Gainbehera.

Hernanin 1943 urte inguruan jokatu zen azken pultsulari apustua. Bertan, Gurmendi baserriko Benitok eta Arrigorriaga deitura zuen bere lagun batek jokatu zuten Zinkoeneako tabernaren ondoan dagoen lorategian. *"Orduan gaurkoaren aldean handiagoa zen"* dio Goikotxeak.

Harri-jasotzea indar hartzen joan zen heinean, pultsua ahuldu egin zen. Halere, 1959an eta 1960an, Aginagan, Euskal Herriko pultsulari txapelketak jokatu ziren; bai halterofilia olinpiko eran eta bai era klasikoan ere.

Duela berrogeita hamar urte Antonio Zavala bertso adituak, Julio Bareño gernikarrak bidalitako ondorengo bertsoak jaso zituen. Azken honek, norbaiten ahotik entzundakoak zirela jakinarazi zion. *"Orain urte askotxo, Oleta, Amoroto aldean izan zen pultsulari-jokoaren bertsoak dira"* argibidea eman zion bizkaitarrak aita Zavalari.

Julian Berengua,
askok dakiguna,
pultsoan jokatzera
erbestera joana.

Ari kendu zioten
joko ezaguna,
baña ez indarrez da
egokitasunaz.

Geure defensoria
Jose Aldazabal,
ak ere errazoia
sustantziaz eman.

Obeto jasoteko
baleuko nai beza,
ori etzan gustatzen
Oleta'ko plazan.

Jokue doblatuta
beste plaza baten,
axe konbenentzia
nai dezuten urten.

Andiek emoteko
liberdi propiñe,
danak izan zituen
berdidu eziñe,
andia ona da baña
txikie obie.

ANTTON ZABALA, OSPE HANDIKO ESKALATZAILE HERNANIARRA

Andoni Arabaolaza



Antton Zabala Etxauriko eskalada eskolan hartutako irudi batean (argazkia: Ekaitz Maiz).

Txiki-txikitatik ezagutzen dugunok, aski ondo dakigu Antton Zabala betidanik oso kirolari trebea eta osoa izan dela. Berdin zion korrika egiten, bizikletan, futbolean... beti nabarmentzen zen. Hori dela eta, eskaladara salto egin zuenean, jakin bagenekien kirol horretan ondo baino hobeto murgilduko zela. Eta, jakina, bere aukeraketan asmatu egin du.

Nahiz eta arrokan maila oso altuan jarduten duen, Antton batez ere eskalada lehiaketetan ezaguna egin da. Gazte-gaztetik hasi zen lehiatzen, eta segituan emaitza bikainak erdietsi zituen. Bere curriculumari begiradatxo bat ematen badiogu ez gaitu harritzen lehiari esker fama handia hartu duela: 18 zein 20 urtez azpikoetan bina Euskal Herriko Txapelketa poltsikoratu ditu; 18 urtez azpikoen mailan Espainiako Kopan irabazi eta laugarren geratu da; 18 urtez azpikoen Espainiako Txapelketan bigarren eta laugarren sailkatu da; 20 urtez azpikoen Espainiako Kopan bigarren zein laugarren postuak eskuratu ditu; eta sailkapen berdinak 20 urtez azpikoen Espainiako Txapelketan egin ditu.

Hori guztia gazte mailei dagokienez, baina aurten eskalatzaile hernaniarrak nagusien edo seniorren mailara salto egin du; eta nola gainera! Aurtengo Euskal Herriko Bulderreko eta Eskaladako Txapelketetan bigarren eta hirugarren geratu da, hurrenez hurren. Eta hori gutxi izango balitz, Espainiako Kopako proba batean finalera pasa eta zazpigarren sailkatu da. Lehia ofizialez gain, hainbat Nazioarteko Irekietan podiumak sinatu eta hainbat txapelketa herrikoi irabazi ditu.

Baten bat harrituko da honako hau entzuterakoan: *"14 urterekin futbola utzi eta eskaladan sartu nintzen"*. Zergatik hautu hori?
Txiki-txikitatik futbolean ibili nintzen, baina, urteek aurrera egin ahala, aspertzen hasi nintzen. Osaba bat eskalatzaile daukat, eta hark behin arrokara eraman ninduen eta gustatu zitzaidan. Nire lehenbiziko urratsak gure herriko Hatzi Klimbers rokodromoan edo bulder aretoan eman nituen. Azkenean futbola utzi nuen, eskaladak gehiago betetzen ninduelako.


Urrats hori eman aurretik, astean zehar futboleko entrenamenduak zein partidak eta Hatzi Klimbersen saioak uztartzen zenituen. Astea bete-betea zeneukan!
Futbola denboraldiaren erdian ez uzteagatik, bada, amaiera arte segitzea erabaki nuen; baina, hori bai, eskalada utzi gabe. Futbolean hainbat tranpa egin (entrenamenduetara ez nintzen joaten) eta eskalatzera joaten nintzen. Aste osoa, zazpi egunak, kirola egiten pasatzen nuen, baina eskalada berria zenez eta harrapatu ninduenez, ez zitzaidan batere inporta aste osoa kirola egiten jardutea.

Nahiz eta gaztea izan eta sasoiko egon, pentsatzen dut leher eginda bukatuko zenuela.
Bai, baina, aurreratu dizudanez, oso gustura eta ondo pasatzen nuen.

Arestian Hatzi Klimbers eskalada aretoa aipatu dugu, Hernanin dugun bakarra. Lagungarri izan zaizu, ezta?
Behin joan eta hango sarean erori nintzen; niretzat magnetismoa izugarria izan zuen. Nahiz eta ordu batzuk han entrenatzen egon eta leher eginda bukatu, beti uzten nituen bide batzuk bukatu gabe; jakina, biharamunean berriro adarretatik hartzeko eta ahal nuen guztia eman gainditu ahal izateko. Ordu piloa sartzen nuen; nik uste dut ordu gehien sartzen zuen taldekidea nintzela. Pixkaka maila handiagoa hartzen joan nintzen, eta horrek oso oinarri ona eman zidan nire lehen lehiaketan parte hartzeko.

Hasieran ondo pasatzera joaten nintzen bakarrik, baina behin maila bat edukita nire asmoak beste batzuk ziren: ondo pasa baina entrenamendu gogorrak egiten. Bestalde, iaz egin genuen txapelketan ekipatzaile lanetan jardun nuen; parte-hartzaileei oso bloke interesgarriak jarri genizkien. Egun jarraitzen dut joaten, eta, inolako zalantzarik gabe, beti jarraituko dut. Rokodromoari esker, jende asko ezagutu dut eta aukera eman dit arrokara makina bat lagunekin joateko. Nire ibilbidean Hatzi Klimbers oso garrantzitsua izan da.

Jakin badakit, zure gurasoei ez zitzaiela gehiegi gustatu futbola uztearena eta eskaladan sartzearena. Nola eraman zenuen?
Gurasoek pentsatzen zuten futbola uzten banuen, kirola utziko nuela. Eta, jakina, erabat nahastu egin ziren. Bazirudien ez zutela nirekin inolako konfiantzarik. Jakin badakizu ere eskaladak arrisku mamu hori duela, eta horrek beldurtu egiten ditu gurasoak. Gurasoen presioa zela-eta, hasieran ez nuen batere ondo pasa, baina behin eskaladan buru belarri ikusi nindutenean eta lehiaketetan emaitza onak lortzen nituela, iritziz aldatu zuten. Egun, berriz, nirekin arro sentitzen dira.



Aurtengo Euskal Herriko Eskalada Txapelketan eskalatzen; hirugarren sailkatu zen (argazkia: Jon Balsera).

Esan bezala, 14 urterekin hasi zinen eskaladan. Nola izan ziren zure lehenbiziko esperientziak. Nora joaten zinen?
Arrokara lehen aldiz Pasaiara joan nintzen, eta hortik aurrera eskalada eskola ezberdinak ezagutzen joan nintzen. Ondoren, jakina, Santa Barbaran nire lehenbiziko urratsak eman nituen; astean hiruzpalau aldiz bertaratzen nintzen. Eta maila jakin bat hasi nintzenean hartzen, Euskal Herriko hainbat eta hainbat eskalada eskola ezagutzen joan nintzen.

Eskalada aipatzen ari gara, baina zehaztu edo argitu behar dugu eskaladaren modalitate bat aukeratu zenuela: kirol eskalada. Zergatik hori?
Gehien betetzen nauen modalitatea da. Kirol eskaladan zailtasunak du garrantzi handia, eta hori gainditu ahal izateko den-dena eman behar duzu. Niri hori, a tope estutzearena, gustatzen zait. Behin neure helburua betetzen dudanean, beste bat jartzen dut, eta hori berriro gainditzen saiatzen naiz. Ez da soilik zenbaki eta letra batzuen kasua; hori inportantea da, baina lehenik eta behin bidearen estetika gustatu behar zaizu.

Pareta handietan ere ibilia zara. Horrek ez al zaitu hainbeste erakarri?
Pareta luze batzuetan eskalada bakan batzuk egin ditut: Jentilbaratzan (Ataun), Aiztondon (Uharte Arakil), Bi Haizpetan (Irurtzun)... Ondo pasa nuen, gustatu ere bai, baina, lehen aipatu ditudan arrazoiengatik, kirol eskaladak gehiago betetzen nau.

Kirol eskaladan duzun bilakaera bikaina izaten ari da oso. 6 urteren buruan 8b gradura iritsi zara. Harritu al zaitu hain maila ona lortzea?
Ezustea edo ez, aitortu behar dut zailtasunean urrats garrantzitsuak eman ditudala oso denbora gutxian. Hala ere, oso gaztea naiz (20 urte ditut), eta uste dut oraindik arrokan askoz gehiago eman dezakedala.

Hatzi Klimbers eskalada aretoa mintzagai izan dugu, baina ezin dugu ahaztu arrokan, Hernanin, Eus-

kal Herria mailan eskalada eskola historikoa dugula: Santa Barbara. Zerk eman dizu?
Zorte handia izan dut etxetik gertu izateagatik. Han hasi nintzen, han bide asko eskalatu ditut eta han oso une politak bizi izan ditut. Oso eskola berezia izan da niretzat arlo guztietan. Bide zailenak egin ditut dagoeneko, baina, halere, egun Santa Barbara joaten jarraitzen dut: bide batzuk eskalatu, une eder batzuk lagunekin pasa... Uste dut Hernanin egundoko zortea dugula Santa Barbararekin.

Eskaladak leku ezberdinak ezagutzeko parada eman dizu. Zeintzuk dira gehien gustuko dituzun eskalada guneak?
Euskal Herrian dagoeneko asko ezagutzen ditut, eta batzuk aipatzekotan: Araotz, Eulate, Lezaia, Etxauri... Batez ere Nafarroakoak.

20 urterekin dagoeneko oso oinarri sendoa duzu. Nola ikusten duzu aurrerantzean zeure burua?
Lehenik eta behin oinarria sendotzen jarraitu behar dut, horrek etorkizuneko helburuentzat oso garrantzitsua baita. Erronka finko batzuk baditut, eta horiek gainditzen saiatuko naiz. Ez nau obsesionatzen egundoko balentriak egiteak; ni ez naiz profesionala eta beraz amateur bat bezala jarduten dut. Inportanteena da gustatzen zaidan kirol bat egiten jarraitzen dudala, asko betetzen nauen kirola, eta ahal dudan hobekien pasatzen saiatzen naiz.

Hernanin eskalatzaile talde majoa dago. Zer giro ikusten duzu?
Hatzi Klimbers rokodromoan, adibidez, oso giro polita dugu. Hasi dira gazte gehiago agertzen, eta denen artean oso une ederrak igarotzen ditugu. Han entrenatzeaz gain, ondo pasatzera joaten gara; oso pike onak izaten ditugu.

Arrokara ere batzuk elkarrekin joaten gara, baina egun batez ere maila handiagoa duten kanpoko jendearekin planak egiten ditut.

Kirol eskalada praktikatzeaz gain, blokea edo bulderra ere egiten duzu. Kirol eskaladan bezala, argi dago eskalada modalitate horretan ere ondo baino hobeto moldatzen zarela.
Hernaniko rokodromoa azken finean bulder areto bat da. Aretoan hainbeste ordu sartuta pasa ondoren, bada, indarra hartzen duzu, eta hori blokean ia garrantzitsuena da. Asko gustatzen zait bulderra eta asko praktikatzen saiatzen naiz, baina kirol eskaladari bezainbeste garrantziarik ez diot ematen. Horrekin esan nahi dizut kirol eskalada bulderra baino gehiago gustatzen zaidala.

Bulderra batez ere neguan egiten da. Aurten, adibidez, Jaizkibelen asko ikusi zaitugu.
Neguko zati handi bat bulderra egiten ibili naiz. Oso motibatua sentitzen nintzen, eta neguan askoz ere baldintza egokiagoak izaten dira. Batez ere Jaizkibelen ibili naiz, oso indartsu eta zailtasun handiko blokeak egiten. Gainera, etxetik oso gertu eta oso alderdi eder batean kokatuta dago. Blokea negurako oso alternatiba ona da.

Eskaladan sartu eta berehala lehiatzen hasi zinen. Nola izan zen. Zergatik?
Nire maila handitzen ari zenez, nire osabak eskalada proba batean parte hartzea proposatu zidan, eta nik baiezko erantzuna eman nion. Ez nekien zer ziren lehiaketak, eta probatzea interesgarria izango zela iruditu zitzaidan.

Pio Baroja Nazioarteko Irekia izan zen zure lehen lehia. 14 urte zenituen, eta, hara non, hirugarren sailkatu zinen. Nola gogoratzen duzu txapelketa hura?
Proba horrek sona handia zuen batez ere ingurumari honetan, besteak beste, eskalatzaile frantses asko bertaratzen zirelako. Aitortu behar dizut ez nengoela oso urduri, futbolean ere lehiatua nintzelako. Hori bai, bazirudien beste mundu batean nengoela. Gainera, finalera sailkatu nintzenez, goizez eta arratsaldez lehiatu behar izan nintzen. Ordu asko izan ziren, eta azkenean, ustekabean, hirugarren postua lortu nuen. Kristoren poza hartu nuen eta, jakina, beste proba batzuetan parte hartzeko gogoa piztu zitzaidan.

Lehiaketa horren ostean, Fortuna eskalada taldean sartzeko aukera izan zenuen. Talde horrek, entrenatzeaz gain, Espainiako Kopan zein Txapelketetan parte hartzeko bidea ireki zizun.
Zorte handia izan nuen talde horretan sartzea. Entrenamenduekin ba-



Antton, Etxauriko "En rebeldia" bidean (8a) eskalatzen (argazkia: Ekaitz Maiz).



Gazte-gaztetatik lehiaketetan nabarmentzen hasi zen; argazkian, 2005eko Euskal Herriko Eskalada Txapelketaren txapelarekin (argazkia: Jon Balsera).

tera eskalada oso serio hartu nuen, eta beste lehiaketa garrantzitsu batzuetan parte hartzeko aukera ezin hobea izan nuen. Bat-batean, eta espero gabe, Espainiako zirkuitu ofizialean egon nintzen, eta oso emaitza onak erdietsi nituen.

Urteen poderioz, esperientzia izugarria jaso zenuen, eta oso lehiaketa garrantzitsuak irabazi ere. Nolakoa izan da bilakaera hori?

Lehenbiziko urtean, adibidez, Euskal Herriko Txapelketa irabazi nuen, eta jubenilen maila utzi arte urte guztietan irabazi dut. Espainiako Kopan zein Txapelketan ere oso emaitza onak izan ditut, ia denboraldi guztietan irabazi edo podiumean egon naizelako. Badirudi lehiaketa eta ni ondo moldatu garela; bederen, emaitzek hori adierazten dute.

Eskalada lehiaketetatik, zer da gehien erakartzen zaituena?

Lehiaketak oso konplexuak dira, eta oso zehatza behar duzu izan. Akats tonto batekin lehiaketatik kanpo geratzen zara. Bestalde, urduritasuna ondo baino hobeto kontrolatu behar duzu eta aurrean duzun bidea ondo ikusi. Zailtasun guzti horiek bere bizitasuna dute, eta, une gogorrak pasatzen baditut ere, egoera zailak gainditzea gustatzen zait. Proba indibidualak dira eta ez taldekoak; beraz, irabazten dudanean edo postu on bat lortzen dudanean argi dago zuk zeuk lortu duzula. Gainera, ikusle ugari egoten da, eta haien animuek indartzen eta motibatzen naute. Egoera hori bizitzea oso polita da.

Espainia mailan lortutako emaitzei esker, 2005ean Pekinera (Txina) joan zinen Espainiako selekzioarekin Munduko Txapelketan parte hartzeko. Zer-nolako esperientzia izan zen?

Hasieratik ez nuen sinistu. Hain garrantzitsua den txapelketa horretara joateaz ez nintzen ia jabetu. Behin Hernanira itzuli nintzenean, ohartu nintzen Munduko Txapelketa batean parte hartu nuela. Munduko onenak han ziren, eta piloa flipatu nuen. Lehen nazioarteko lehia zen, eta, han bai, urduritasuna agertu zen eta ez nintzen nik nahi nuen bezala lehiatu. Hala ere, egundoko esperientzia izan zen, eta ez dut inoiz ahaztuko.

Nazioarte mailan beste lehiaketa batzuetan izan zara. Lehiek munduko bazter ezberdinak ezagutzeko parada eman dizute.

Bai. Hurrengo urtean Polonian izan nintzen Europako Kopako proba batean; berriro Espainiako selekzioarekin. Orduan ezberdina izan zen: esperientzi gehiago nuen eta askoz hobeto aritu nintzen. Urte berean Austrian izan nintzen, han jokatu zelako Munduko Txapelketa. Ondo sentitu nintzen, gero eta esperientzia handiagorekin gero eta hobeto lehiatzen zarelako. Hala ere, ez nintzen lehenengoen artean egon, oso maila handia baitzegoen. Alabaina, emaitzak baino gehiago esperientzia hartzea zen garrantzitsuagoa. Hemen nazioarteko beste herrialde batzuekin alderatuta, jubenilen lehiaketari ez zaio behar hainbat garrantzia ematen. Eta hori nazioartera joaten zarenean, ondo baino hobeto nabaritzen duzu.

Espainiako selekzioan izan zara, baina ezin dugu ahaztu ere euskal selekzioarekin lehiatu zarela.

Hala da. Euskal Mendizale Federazioak jubenila nintzela selekzioan parte hartzeko aukeratu ninduen. Talde horrekin Espainiako Kopan zein Txapelketan parte hartu dut. Ilusio handia eman zidan aukeratu ninduteneen. Aitortu behar dut oso talde kohesionatua izatea lortu dugula.



Anttonek ondo baino hobeto ezagutzen ditu podiumak; argazkian, aurtengo Euskal Herriko Eskalada Txapelketaren hirugarren saria altxatzen (argazkia: Jon Balsera).



Eskalatzaile hernaniarra 2008ko Euskal Herriko Bloke Txapelketan lehiatzen; bigarren postua eskuratu zuen (argazkia: Andoni Canellada).

Jubeniletako maila ezberdinetan Euskal Herrian nagusi eta Espainian lehenengoen artean ibili ondoren, aurten seniorren edo nagusien mailara salto egin duzu. Eta nola gainera!

Nire lehen seniorreko urtea izateko, erabat harrituta nago. Euskal Herriko bi txapelketa garrantzitsuenetan izan naiz: zailtasuna zein blokekoan. Eta izugarrizko emaitzak lortu ditut. Normalean jubeniletatik nagusietara pasatzen zarenean asko nabaritzen da, baina agian jubeniletan izan dudan esperientziak asko lagundu nau. Bulderreko Txapelketan bigarren geratu nintzen, eta han ziren hemengo espezialista onenak. Zailtasunean, berriz, hirugarren, eta han ere eskalatzaile oso indartsuak gainditu nituen. Emaitza horiekin konformatu baino gehiago egiten naiz. Ia sinestezina gertatu zait. Gainera, txapelketa horiek nire aurtengo helburu garrantzitsuak ziren. Espainiako proba ofizialak ezberdinak dira, eta hor bai maila aldaketa nabaritzen ari naiz. Hala ere, Oviedon jokatutako Espainiako Kopako proban zazpigarren sailkatu nintzen; nagusien final batera pasatzen nintzen lehen aldia zen. Poz handia hartu nuen, eta sailkapen horrek egun dudan motibazioa indartu du.

Lehiaketei dagokienez, aurrerantzean zein asmo dituzu?

Lehia oso gustuko dut, eta jarraitzeko gogo handiz nago. Lehiaketei garrantzia ematen diet baina ez izugarria. Niri, bederen, arrokan eskalatzea da gehien gustatzen zaidana. Lehiaketetan parte hartzen jarraituko dut, baina indar guztiak jarri gabe.

Andoni Martin, errekortadorea

"Ez ditut zezenak ikusten plazara salto egin aurretik, nerbioso jartzen naizelako"

Gorka Bereziartua

"Harrapatu behar diat deabru hori. Zer uste dik, salto eta salto, keinua egin, besoak jaso... Adarretik probatu beharko dik lasaitzeko". Burua makurtu du, lau hankak zabal hondarrean, lerdea luze ahotik zintzilik. *"Paretan josiko haut!"*. Animalia zena mugimendu beltza da orain, ehunka kilo haragi basati, odol egarriz trostan. Parean daukan mutilak besoak jaitsi gabe irribarre txikia egin du. 20 metro daude bien artean, 15... 10... 5... 4... 3... 2... 1. Eta adarrek haizea zauritu dute. Zezenaren begiek segundo erdian desagertzen ikusi dute Andoni Martin, orain korrika hesira igotzen ikusi duten bezain azkar. *"Beste batean, beste batean harrapatuko haut bai!"* dio zezenak. Badaki, noski, gezurra dela.



Plazan hesira igota zeunden. Eta batbatean jaitsi egin zinen; ez alde lasaienera, egia esateko. Noiz egin zenuen hori aurreneko aldiz?

Lagun bat neukan sokamuturrean ateratzen zena, eta hura ikustean animatu nintzen. Bakilla txikietan ateratzen hasi nintzen, handietan ez nintzen atrebitzen. Txikietan ere beldur dezente ematen zidan, baina ikusten nituenean emozionatu egiten nintzen. Eta horrela, behin lagunekin apustuak egiten hasi, ea zeinek lehenago adarrak ukituko... Hamabi urterekin-edo izan zen hori; hamahiru betetzerako bastante ibiltzen zen beste lagun batekin elkartua nintzen, animaliaren gainetik salto egin behar genuela, eta salto egin behar genuela.

Zenbat urte dituzu orain?

Hemezortzi.

Sei urte daramazkizu orduan!

Serio-serio lau bat, baina bai.

Esan egia, beldurra sentitzen duzu oraindik.

Bai. Zezenak oraindik atera ez direnean, kamioian daudenean, akojonatuta egoten naiz. Beste bi lagunekin ibiltzen naiz, ni bezala afizionatuak dira, baina horiei ez die hainbeste eragiten. Gero, plaza barruan zaudenean adrenalina hutsa da. Emozioa, ez dakit nola esplikatu, beldurra ez behintzat. Baina hasieran bai, oraindik harritu egiten naiz. Ez ditut zezenak ikusten sartu aurretik, nerbioso jartzen naizelako.

Badaezpada ezta? Piztia handiegia bada ere...

Berdin zait handiak edo txikiak izatea... Nahiago ez ikustea!

Bakillek ez didate beldurrik ematen; zezen-zezen horietako batek ordea...

Zezen-zezenekin, Iruñean Sanferminetan ateratzen dituzten horiekin-eta, ez gara ibiltzen. Hernanin uste dut 220 edo 320 kilo inguruan dagoela zezenak gehienez pisatu dezakeena. Nafarroan-eta bai, handiagoak ateratzen dituzte. Orduan, herrian suelto uzten dituztenean ateratzen naiz, baina errekorteak egitera ez.



Hernanin sokamuturra asko izango dugu, baina errekortearen artea gutxik dominatzen dute.

Ateratzen diren asko mozkortuta daude–eta... Sokamuturrean atera behar badut aurreko gauean goiz joaten naiz etxera eta ez dut edaten. Zezenekin ibiltzeko ohitura dugun hiru lagunok horrela ibiltzen gara. Besteak, igual edanarengatik-edo, festetan gehiago ausartzen dira. Hala ere esango nuke afizioa sortzen ari dela: lehen bi ibiltzen ginen, orain lau... Pixkanaka ari da zerbait sortzen.

Bota hondarra platerean, nahastu izerdi pixka batekin eta azken ukitua emateko jarri adar parea zure atzetik korrika... Errezetak "Susto handia" du izena. Zure menuan sartu al da noizbait?

Ia urtero... Aurten inportante samar bat izan dut. Urte hasieran Tolosan harrapatu ninduen eta horregatik nahiko lasai ibili naiz geroztik. Gutxi atera naiz urte guztian, Goizuetako festak arte. Han askoz hobeto ibili naiz, baina bestela aurten bastante beldurtuta.

Kontatu, kontatu Tolosako hori...

Normalean herrietan ez da zezen plazarik izaten, altura diferenteak dituzten hesiak egoten dira. Tolosan ez, han zezen plaza dago eta hesia gorri horietakoa da...

Gorriak pasarazteko!

...ez gaude ohituta hori igotzera. Bi pausotan egin behar da eta, bai nik baita beste denek ere, korrika goazela mantsotu egiten dugu salto egin aurretik. Zezena oso handia zen egia esan, oso azkar nindoan; frenatu nuen, zezenak harrapatu eta buruz joan nintzen hesiaren kontra. Goiko parte zuri horretan eman nion bizkarrarekin. Astebetez nahiko gaizki egon nintzen.

Ospitalean?

Ez, bestela: hanka bendatuta eta ezin ondo ibili. Ospitalera joateko moduko sustorik ez dut izan.

Entrenamenduren bat egiten al duzu?

Beroketak-eta bai, baina bestela ez dut entrenatzen. Festak ez dira oso segidan izaten: Hernani, Astigarraga eta Lasartekoak izan ezik besteak aste batzuen diferentziarekin izaten dira. Hasieran xuabe-xuabe, gutxi ateraz hasten zara; gero gehiago, berotzen joaten zara...



Tolosa, Astigarraga, Hernani, Goizueta... Zezen-turismoak nola funtzionatzen du? Deitu egiten dizuete ala zuek joaten zarete zuen kontutik?

Batzuei deitu egiten diete. Horiek elkarte batean daude, Euskal Herriko Errekortadoreak. Gu gure kontutik mugitzen gara.

Autonomoak zarete beraz. Ikasteko ere bai? Ze toreroek ere eskolak dituzte gaur egun...

Ez gara mugitu baina Euskal Herriko Errekortadoreak elkartekoekin harreman handia daukagu eta azaldu izan digute nola funtzionatzen duen kontuak: gaztetan errekorteekin nabarmentzen bazara ganaduzaleak deitzen dizu. Zezenak ateratzen dizkizute, ze beraiek ere jendea behar dute animalia probatzeko, zeintzuk balio duten eta zeintzuk ez. Errekortadore horiek ganadutegiaren kamisetarekin joaten dira, lehiaketak antolatzen dizkiete... Horietako lau edo bost Donostiako errekortadore txapelketan ateratzen dituzte. Entrenamenduak? Ez gara enteratu. Beti nahi izan dugu eta aurten herriren bateko festetako programan ikastaroren bat antolatu dutela uste dut. Lehenengo urtea izan da eta ez dakit nola funtzionatu duen.

Zaletasuna sortzen lagunduko luke agian...

Hemen ez dago hainbesteko afiziorik. Merezi du? Ez dakit. Pixkanaka joan behar da, herriko festetatik hasita.

Andaluzian berriz, seguru sei urteko umeek ere errekortatzen dutela!

Han ere ez! Errioxan bai, Nafarroan ere bai, eta Valentzian. Valentzian izango dira gehienak. Madrilen ere ikusten dira...

Joan zara horietara, nola egiten duten ikusteko?

Nafarroan eta Errioxan izan naiz, baina errekortadoreak ez, zezenak ikusi ditut kanpoan.

Eta zer iruditzen zezenketekin dagoen betiko eztabaida? Zuei ere tokatuko zitzaizuen "animalia gaixoa horrela mareatzen ibiltzea ere!" entzun beharra.

Aurten San Joanetan esan zidaten bai... Zezenketak ez zaizkit gustatzen, baina errekortatzea diferentea da, ez dituzu hiltzen.

Errekortadorea da zezenaren lagunik onena!

Ez da hori ere. Leku batzuetan heldu egiten diote, hortaz asko kexatzen naiz. Lurrera bota ere bai, batzuetan. Baina errekortatzen zezenak ez du hain gaizki pasatzen.

CRONICA 2006-2007ko KRONIKA

Mikel Zapiain (Hernaniko Udal Artxiboa)

CRONICA 2006ko KRONIKA

Urtarrila / Enero

•Tailerrak, jolasak, irteerak eta... martxan Gazte Txokoak antolatuta.
•SOS Arrazakeriaren *Ni ere pertsona* erakusketa ikusgai Biterin.
•Latsunbeberriko Aizpuru farmaziak egingo ditu gaueko guardiak 2006. urtean.
•Kimaketa lanetan hasita daude lorazainak.
•Masaje zerbitzua martxan Kiroldegian.
•Maitane Iruretagoyena Gipuzkoako Txapeldun pista estaliko 60 metroetan.
•Lau urte pasa ondoren Hernaniko arraunlariak berriro entrenatzen.
•Eski ikastaroak Mendiriz Mendik antolatuta.
•Zine Kluba berriro martxan.
•Zilegi Estola martxan.

Urtarrila 2 – 3 enero
•Jolasak umeentzat Kiroldegian.

Urtarrila 3 enero
•Ipui kontalariak Udal Liburutegian.

Urtarrila 4 enero
•*Betizuak Izar Artean* Sandiusterrin.

Urtarrila 5 – 6 enero
•Erregeak.

Urtarrila 8 enero
•*Las tortugas también vuelan* Natzako Errotan.

Urtarrila 10 enero
•Anorexia eta bulimiari buruzko hitzaldia Biterin (ACABE).

Urtarrila 11 – 13 enero
•Askagintzaren 14. Jardunaldiak. Erakusketa era Biterin (urtarrilak 9-13).

Urtarrila 12 enero
•Saharako egoera soziopolitikoari buruzko hitzaldia Biterin (Frente Polisario: Badadi Benamar).
•*Shakespeare in Chicago* antzerkia ingelesez Biterin.

Urtarrila 13 enero
•Ehiza Txapelketako sariak emateko afaria Txantxangorri elkartean.

Urtarrila 14 enero
•Bertso afaria Martindegiko Gurutzeta sagardotegian Irazu eta S. Lizaso bertsolarieekin.
•Kalez kale kantari.
•Pelota. Berria Txapelketa martxan.
•Puesto de Comercio Justo en Plaza Berria.

Urtarrila 15 enero
•Salida a Riezu y Trinidad de Iturgoien (Mendiriz Mendi).
•Ur jolasak Kiroldegian.
•*AHT gelditu!* Elkarlan-aren murala Tilosetan.

Urtarrila 17 enero
•Conferencia *Hacer deporte sin dañar la espalda* en Biteri Kultur etxea (Dr. Marmier).
•Incendio en el pabellón de AFEDE en Eziago poligonoa.

Urtarrila 17 – 31 enero
•Gotzon Huegun artelanak ikusgai Biterin. Una obra suya se instala en el nuevo espacio inaugurado en Zinkoenea (urtarrilak 18).

Urtarrila 19 enero
•Tabernetako bertso finala Garin tabernan.
•Un muerto y dos heridos al chocar dos coches, un camión y un autobús en la GI-131.

Urtarrila 21 enero
•*Kartoibiraka* (Markeline) antzerki obra haurrentzat Biterin.
•Sagarrondotik aurkezpen ekitaldian: Benito Lertxundiren kontzertua.
•Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa (Berdintasun kontseilua).
•EHNA tramitatzeko deialdia.

Urtarrilla 21 – 22 enero
•Zazpi hernaniar Euskadiko Atletismoko Txapelketan Donostian.

Urtarrila 22 enero
•Txotx Eguna Gudarien plazan: Chillida familiak irekitzen du denboraldi berria.
•Urdaburu mendira irteera (Mendiriz Mendi).
•Atsegindegi plaza berria irekita.

Urtarrila 23 – 26 enero
•Sagar jaia ikasleentzat Atsegindegin.

Urtarrila 25 enero
•Grazi Morcillo atxilotuta Frantzian.

Urtarrilla 25 – 27 enero
•Etxeko ura aurrezten erakusteko autobusa Urbietan *Urik onena, alferrik galtzen ez dena* lemarekin.

Urtarrila 27 enero
•*Zuen seme alabek behar zaituztete guraso eta aiton-amonak. Osasun agente moduan* hitzaldia Biterin.
•Jon Garmendia *Txuria* Madrilera eramaten dute.

Urtarrila 28 enero
- BH Bildu Hernanik lokal berria inauguratzen du Kardaberaz kalean.
- Festa Triku tabernan: *Nazka, DJ Polain, DJ Water Parties,...*

Urtarrila 29 enero
- Sorginkeri tailerra Atsegindegin.
- *Aljerko bataila* filma Natzako lokalean.
- Trialsina Fagollagan.

Urtarrila 30 enero
- Lizarrako Gaiteroak Biterin.
- Imanol Etxeberria hernaniarrak irabazten du inauterietako kartel lehiaketa.
- Hernaniko Elizatxo, Langile eta Urumea ikastolak mugi kortasunaren gaia lantzen dute, Udalarekin akordioa sinatu eta gero (EsKola Agenda 21).

Urtarrila 31 enero
- Ipuin ordua Udal liburutegian Pello Añorgarekin.

Otsaila / Febrero

- Autobus zerbitzua martxan sagardotegietara joateko (eta bueltatzeko) ostegun, ostiral eta larunbatetan.
- *Apellidoak abizendu* izeneko kanpaina martxan.
- Semáforos en Martindegi para mejorar la seguridad de los peatones.
- Kale Nagusian botatako etxeetan jatorrizko fatxada jarri behar du promotorak, Udalak eskatuta.
- El área de Hernani dispondrá de sirenas para alertar de accidentes químicos.
- Eider Aldabe (bronce) y Maitane Iruretagoiena (quinta) en el Campeonato absoluto de Euskadi de atletismo en pista cubierta.
- Komunikazio kanpaina txotx denboraldian sortzen diren arazoak konpontzeko.
- Kontsumo Bulegoak dendetan araudia betetzen ote den ikuskatuko du.
- La Diputación de Gipuzkoa compromete la cantidad de 75.000 €. para financiar junto con el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Hernani un monumento en memoria de las personas fusiladas en el municipio durante la guerra de 1936. El escultor Carlos López de Ceballos resulta ganador del concurso convocado con la obra *Argi-Horma*.
- Herriko zenbait arbola bota dituzte alergia arazoak sortzen zituztelako.
- Ibon Zabala se proclama campeón de Gipuzkoa de trinkete en mano individual.
- *Puzkarra Records* zigilu berria, Jon Ijurko eta Ibon Apezetxea hernaniarrek sortua.
- Contenedores de mayor capacidad para la recogida de basura.
- Actividades varias sobre riesgos de/en empresas químicas.

Otsaila 2 febrero
- Bilera etxebizitzaren inguruan Biterin (Ate Joka taldea).
- Bilera TAO-ren inguruan (Udalak deituta) Biterin.

Otsaila 2 – 16 febrero
- Exposición fotográfica sobre el Sahara en Biteri Kultur etxea.

Otsaila 3 febrero
- Inmobiliarien papera salatzeko mani-kalejira (Ate Joka elkartea).
- Miren Aintzane Egiluzek irabazten du Berdintasun Kontseiluko bigarren beka deialdia. Hernaniar emakumeen bizitza publikoa aztertuko du Aintzanek.

Otsaila 4 febrero
- Pop-rock kontzertua Plaza Berrian: *La Fonda*.
- Comparsa de Caldereros (Elur Txori).
- Santa Ageda bezpera.
- *Familiaren eguna* Atsegindegi plazan (Eroski).

Otsaila 5 febrero
- Santa Barbara elkarteko batzar nagusia: emakumeak bazki de izateari baiezkoa ematen dio.
- 400 atleta biltzen dira 43. Adarraga Memorialean alebin, infantil eta kadete mailan, Landaren.
- Ur ludoteka kiroldegian.
- Fernando Lopez de Zubiriak 100 urte betetzen ditu.

Otsaila 7 febrero
- Conferencia *¿Que nos preocupa del consumo de droga de los jóvenes?* en Biteri: Gabriel Roldán Intxusta, psicólogo clínico (Hernani Institutua).

Otsaila 8 febrero
- Eroskik ateak irekitzen ditu Agustindarren plazan.

Otsaila 9 febrero
- 18/98+ lan taldearen bilera Biteri Kultur etxean.
- Gau zeltiarra Kixkal tabernan.

Otsaila 10 febrero
- *Bob Marley gogoratuz* musika saioa Leoka tabernan.

Otsaila 11 febrero
- Bidezko merkataritza eta Behemendi azoka Plaza Berrian.
- Kalez kale kantari.

Otsaila 12 febrero
- *Hip-hop funky show* Atsegindegin.
- Salida a Peñas de Aia (Mendiriz Mendi).
- Concierto de la Banda de Música en los arkupes del ayun tamiento.
- *Garage Olimpo* filma NATZAko Errotan.
- Txirri, Mirri eta Txiribitonen Pailazokeriak Biterin.
- Esther Lopezek Kopa irabazten du hirugarren aldiz Tenerife Marichalar taldearekin.

Otsaila 14 febrero
- *Gestión informatizada y eficaz de almacenes* en Hernani Institutua (Karmelo Labaka).

Otsaila 15 – 16 febrero
- *Elur-jausietan ARVAk nola erabili* ikastaroa (Hatzi Klimbers eta Mendiriz Mendik).

Otsaila 16 febrero
- Charla sobre el racismo organizada por AMHER en Biteri.
- *Autoestima eta Autobalorazioa* hitzaldia Emakume zentroan: Inma Utrera psikologoa.

Otsaila 17 febrero
- Hernani Musika eskolako abesbatzak eta Musika bandak *Kaldereroak kontzertuan* saioa Sandiusterrin.
- *Amigos del Sur* taldearen kontzertua Goiz Eguzkin.

Otsaila 18 febrero
- Perkusioi taldea kalean.
- EHNA tramitatzeko aukera Biterin.

Otsaila 18 –19 febrero
- 32. Zuhaitz eguna Aparrainen: haritza, lizarra eta gereziak landatzen dira.

Otsaila 19 febrero
- Eskalada ikasteko ikastaroa (Hatzi Klimbers eta Mendiriz Mendi).
- Inude eta Artzainen konpartsa (Urumea Ikastola).
- Ixiar Urdangarinek irabazten du Euskadiko Kross Txapelketa Lasarten.
- Inauterien inguruko kontzertua udaletxeko arkupetan (Hernaniko Musika Banda).

Otsaila 20 - 22 febrero
- Antzerkia Biterin: *El tiempo herido* (Traspasos konpainia), *Ongi ibili* (Pok Produkzioak) eta *Erreleboa* (Txalo Teatroa konpainia).

Otsaila 20 febrero – Martxoa 8 marzo
- Iker Valleren margok ikusgai Biterin.

Otsaila 23 febrero
- Actuación del Coro y Orquesta de San Ignacio de Moxos (Bolivia) en la Parroquia San Juan Bautista.
- *Elkarri berriarekin bat egin* Biterin (Elkarri).
- Robo de 400 € en el Hogar del Jubilado.

Otsaila 24 febrero
- Bertso afari internazionalista Tripontzi tabernan (Askapena eta Gazte Asanblada).

Otsaila 24 – 28 febrero
- Inauteriak.

Otsaila 25 febrero
- Landareko aldageletan sartu eta sua ematen dute.

Otsaila 25 – 26 febrero
- Trabesiako eski ikastaroa Mendiriz Mendik antolatua.

Otsaila 26 febrero
- 53ko kintoak biltzen dira.

Otsaila 28 febrero
- Ipui kontalaria Udal Liburutegian.
- Igor Anguloren heriotza salatzeko mobilizazioak.

Martxoa / Marzo

- En marcha la grúa municipal.
- Ondea en el Ayuntamiento la bandera de la República Saharaui.
- *Bai eskolak euskalduntzeari* zinadura bilketa martxan da.
- Hernani reduce en un 5,69 % sus residuos urbanos.
- Aldabe, Iruretagoiena y Von Wichmann en el estatal de atletismo. Maitane Iruretagoiena onena 60 metroko lasterketan, kadete mailan. Record de Euskadi de Von Wichmann en 600 metros lisos.
- Tenisa: Maider Martín Euskadiko txapeldun, alebin mailan.
- Hernani Institutuko 7 ikasle Europan dira praktiketan.
- El billete único se comenzará a aplicar en los autobuses de Hernani.
- Eliminados los puntos ciegos de riesgo para los peatones.
- Unai Alvarez pelotari hernaniarra irabazle Kubako Capitan San Luis Txapelketan.
- AMR Refractarios lantegia Floridatik Ibaiondo poligonora eramango dute.
- Concurso de cartas *Díselo a quien maltrata* (Berdintasun kontseilua).
- Hizkuntza Eskubideen inguruan erakusketa Tripontzi tabernan (EHE).
- Las químicas de Hernani cuentan con el visto bueno de la UE en seguridad.

Martxoa 1 marzo
- Pentsamendu positiboari buruzko hitzaldia Emakumearen zentroan.

Martxoa 2 marzo
- Pentsamendu baikor eta ezkorraren inguruko hitzaldia Inma Utrera psokoloagoarekin, Elkano kaleko Emakumearen Zentroan.
- Charla *Aire de esperanzas para el pueblo boliviano* con el obispo D. Manuel Egiguren (Grupo de Cooperación local).

Martxoa 3 marzo
- Talleres sobre habilidades sociales en Urumea Ikastola (Asociación de Madres-Padres). Se repiten a lo largo del mes.
- Mobilizazio eguna (Askatasuna).
- Xabier Lareki atxilotuta Donibane Lohitzunen.

Martxoa 4 marzo
- Lodosako Musika bandaren kontzertua udaletxeko arkupetan.
- Exposición sobre alimentación saludable en Eroski.
- El hernaniarra Agustín Sánchez Berenguer fallece en el incendio de una pensión para indigentes en Bilbo.

Martxoa 5 marzo
- Zanpatzarrak kalean.
- El grupo de submarinismo Hegatz celebra su 25 aniversario.
- SagardoGuneak Chillida Lekun ospatuko den Sagar Eguna aurkezten du.
- Ur ludoteka igerilekuan.
- Pirritx eta Porrotx pailasuen emanaldia 18/98+ plataformari babesa emateko.

Martxoa 6 marzo – Apirila 6 abril
- Curso sobre técnicas de mecanizado en Hernani Institutua.

Martxoa 7 – 28 marzo
- Actividades diversas en torno al Día internacional de la mujer (Berdintasun kontseilua, Udala, Gazte Txokoa, HERNE eta Errapia): erakusketak, filmak, argazki rallya, kontzertuak,...

Martxoa 8 marzo
- Interneten nola saldu ikastaroa, KZgunean.
- Prekarietatearen aurkako furgobira Hernanin.

Martxoa 9 marzo
- Ezker Abertzaleak deituta greba eta mobilizaioa eguna.

Martxoa 9 – 10 marzo
- *Denda virtual bat sortzen* ikastaroa KZgunean.

Martxoa 11 marzo
- Mural pintaketa Tilosetan.
- Kontzertua Goiz Eguzkin: *Alma Navarra.*
- *Ametsen basoa* festa Plaza Berrian.
- Kalez Kale Kantari.
- Bidezko merkatarizako postua Plaza Berrian.
- Pelota. Kronika Txapelketa martxan.
- Txirrindularitza: alebin eta infantil probak Ibarluzen (JOCC Peña Otaño).
- Landare urez gainezka Urumea bere bidetik aterata.
- Nagore Zabala eta Ane Lizeaga Euskal Herriko Pala Txapelketako irabazleak.

Martxoa 12 marzo
- Ibilaldi neurtua gaztetxoentzat (Mendiriz Mendi).
- *Ikasgela Hegalaria* Biterin.
- *Kandahar* película Natza elkarteko lokalean.

Martxoa 13 marzo
- Conferencia sobre los modelos de aprendizaje de valores por la profesora de pedagogía Kontxi Medrano en Biteri (Hernani Institutua).

Martxoa 14 marzo
- Elikadura egokiari buruzko hitzaldia Gure Etxolan.
